

# Beltzaren koloreak

JON ALONSO



nobela beltzari buruzko oharak

**JON ALONSO**

# **Beltzaren koloreak**

**nobela beltzari buruzko oharra**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2016 Jon Alonso

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2016ko urtarrila

Edizio hau: 2016ko urtarrila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.eus](mailto:susalit@armiarma.eus)

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Demagun nobela beltza gertaera kriminal bat, hilketa bat gehienetan (baina ez beti), ikertzen eta argitzen duen narrazio bat dela.

Demagun pertsonaia berezi batek (baina ez beti) hartzen duela gertaera hori ikertzeko lana.

Demagun gertaera eta ikerketak hiri espazio batean gertatzen direla (baina ez beti).

Demagun ikerketak azkenean krimena argitzen duela (baina ez beti), eta krimena argitzearekin batera, gertatu den gizarteari buruzko zertzelada kritikoak ematen dituela. Azken hau, ia beti; baina hain orokorra da esaldia (“gizarteari buruzko zertzelada kritikoak”), ze hor ia edozer sartzen den: introspekzio freudiarretik espioitzara, klase baxuen bizimodutik eta politikatik pasatuz, besteak beste. Eta ikuspuntu guztietatik begiraturik.

Demagun definizio hau, kasik, indefinizio bat dela.

Nobela beltzaz ari garenean bere osotasunean ezin besarkatzen ahal den eta nekez sailkatzen ahal den, are gutxiago definitzen, genero edo azpigenero bati buruz ari gara.

Beraz, zentzuzkoena litzateke gauzak dauden bezala uztea eta bazterrak nahasten ez ibiltzea, eta “ge-

nero beltza” etiketaren azpian iristen zaigun guztiari ongiatorria ematea, hor konpon esanda; alegia, irakurle bakoitzak nahi duena pentsa dezala.

Baina, bistan da, zentzuzkoena denari begira biziko bagina, ez ginateke papera zirriborratzen ibiliko.

Genero beltza ezin dela osotasunean besarkatu, sailkatu edo definitu uste izateak ez du esan nahi, ordea, genero beltzaz hitz egin edo idatzi ezin denik. Gertatzen dena da hala uste duenak badakiela, kasurik onenean ere, egin dezakeena hurbilpen pertsonal bat izatetik ez dela pasatuko.

Hurbilpen pertsonalak, kritikaren ikuspuntu akademiko batetik, balio gutxikoak dira. Ezinbestez partzialak eta interesatuak direlako. Erredukzionistak.

Saiakera txiki hau ere partziala eta interesatua da, noski. Denera irakurri ditudan 25 bat idazlez hitz egingen dut, eta irakurri ditudan haien liburuak, hemen aipatu edo ez, ez dira 100 edo 150 baino askoz gehiago izango. Huskeria bat, ttantta bat baino ez nobela beltzaren itsasoan.

Nik, batez ere, nobela beltzeko nazioarteko idazleak hartu ditut aintzat, ezagutzen ditudanak, noski, denbora-perspektiba batean: 20-30eko hamarkadetakoa hasiera horietatik gaur egunera arte, 70eko hamar-

kada zentzu askotan giltzarri izan zela ahaztu gabe. Eta nobela beltzari atxiki ohi zaizkion ezaugarrietarik inportanteenetako bat delakoan, protagonistaren berezitasunak hartuko ditut aintzat, batez ere, bilakabide historiko horretan: protagonista nor den, errealitatearekiko begirada nondik egiten duen, ikuspegia... ardatz horri jarraituz bestelakorik ere aterako den arren.

Euskal literaturakoak alde batera utziko ditut, ez zaidalako gisakoa iruditzen epailea eta parte izatea, aldi berean. Ez dakit ba, beste batek egiteko geratzen da hori, edo beste une batean.

Bestalde, egia da ez dela batere zaila hemen aipatzen diren jokabideak eta joerak euskal idazleenekin alderatzea.

Ez naiz korapilatuko, ezta ere, gaia lantzen ikuspegi feminista batetik, behar-beharrezkoa den arren. Asko legoke esateko, baina ni ez naiz egokiena horretarako.

Badakit nire iritziak, batzuetan, harrigarriak eta are probokatzailleak ere izan daitezkeela. Ez diot zama horri uko egin nahi izan.

Zer esango dut ba, besterik. Datozela nobela beltzari buruzko beste ikuspegi partzial eta interesatuak,

alde horretatik nirea bezalakoak, baina ezberdinak, eta osa dezagun horrela inork horren erraz botako ez duen *corpus* teoriko moduko bat, denon irizpidea findu dadin. Orain arteko “nobela beltza da” soil eta lakonikoari gehitu ahal diezaiogun atzetik beste zer edo zer.

*Apalarrotasun* guztiarekin esanda.

Azkenik, esan dezadan liburu hau ez zela sortuko Baztango literaturazaleek antolatzen duten (H)ilbeltza izeneko astearengatik ez balitz, eta Gotzon Barandiaranen akuiluarengatik izan ez balitz. Izan ere, saiakerara honen jatorrian Elizondon 2015eko urtarrilean izan zen mahai-inguru baterako prestatu nuen materiala dago; eta material hura osatu eta argitaratzeko bul-tzada Gotzonengandik eta Susako lagunengandik eto-rrri zen. Eskerrik asko haiei guztiei, beraz.

Eta eskerrak Igela argitaletxeari, haien ahaleginik gabe ezer ez zelako berdin izango.

# Jatorria

## HAMMETTEN DETEKTIBEAK

Dashiell Hammettek ere aurrekariak eduki zituen (Carroll John Daly, eta beste), baina badauka abantaila handi bat liburu honi hasiera emateko: aho batez aitortua da nobela beltzaren aita, gehienez ere Raymond Chandlerrekin batera. Eta bere liburuetako bi, *Uzta gorria* (1929) eta *Maltako belatza* (1930), dira, nolabait esan, generoaren paradigma.

Sinplifikazio bat da, baina sinplifikazio horretatik abiatuko gara.

*Uzta gorria*-n Continentaleko agentea da protagonista. Continental agentziako detektibe bat da. Ez dakigu bere izena. Eraginkorra da eta eskrupulurik gabea, badaezpadako bat. *Maltako belatza*-n Sam Spade detektibe pribatu ezaguna da protagonista, gehienok ez bada askok Humphrey Bogarten irudierekin lotzen duguna, eta antzeko ezaugarriak dituen.

Bi detektibe hauen ezaugarri garrantzizkoenetako bat Poliziari dioten mesfidantza eta gorrotoa da. Mes-



fidantza, nobela horietako poliziak muinetaraino ustelduta daudelako; gorrotoa, elkarren lehian dabiltzalako, ehizaki beraren bila dabiltzan bi harrapari direlako.

Mesfidantza eta gorroto hauen adibideak etengabeak dira bi nobela hauetan.

*Uzta gorria*-n etengabeak dira Personvilleko polizien gaineko komentario mespretxagarriak; zakarrak, zozoak, alferrak eta ustelak dira, Personvillen agindu nahi duten gangsterren bandei salduak, poliziaburutik hasita azkenenganaino; delitua egin dutenei ihes egiten laguntzen diete, inolako disimulurik gabe; hiltzailak, lapurrak ustelak eta ustel-eragileak dira; tortura erabiltzen dute...

*Maltako belatza*-n, Spaderen sozioa, Archer, hil egin dute, eta Poliziak Spade jotzen du susmagarri nagusi. Bi polizia joaten zaizkio bisitan; Spade, hala edo nola bada ere, moldatu egiten da horietako batekin, Tomekin. Bestea, Dundy, ezin du ikusi.

Polizien eta detektibearen harremanaren ikuspuntutik antologikoa den eszena bat, bospasei orrialdetako, kontatzen da. Dundyk nork kontratatu duen Spade jakin nahi du:

- Nor da bezeroa?

Baretasuna itzuli zen Spaderen aurpegi eta ahotsera.

Errieta eman ez esan zuen:

- Badakizu ezin dizudala esan bezeroarekin horretaz hitz egin arte.

- Beharko esan. Hementxe bertan niri, edo bestela auzitegian -esan zuen Dundyk suturik-. Hemen hilketa izan da. Ez ahaztu hori.

- Baliteke. Eta hona hemen zuk, polit horrek, ahaztu behar ez duzun beste zerbait. Esango dizut nor den, potroetan jartzen bazait. Poliziak maite ez ninduelako negarrez has-teari aspaldi utzi nion.

Bien arteko tirabira in crescendo doa, argi dago afera ezin dela ongi amaitu. Spadek zera esaten dio Tomi, bigarren poliziari:

- Zer du hire laguntxo honek orain?

Dundyk jauzi egin, eta bi hatz okertuen muturrekin Spaderen bularra jo zuen.

- Hauxe -esan zuen hitz bakoitza ondo ebakiz ahoskatzeko eginahalak eginez eta haien indarra hatz muturren kolpeez azpimarratuz-: Thursby bere hotelaren sarreran zuk Burritt Streetetik alde egin eta handik hogeita hamabost minutura hil dute.

Spadek hitzak ebakitzean besteak adinako lanak hartuz esan zion:

- Ken itzazu atzapar zikin horiek nire gainetik.

Muturka hasteko puntuan. Zakurra eta katua bezala.

Harreman honek islatzen duen hondo ideologikoari dagokionez, erraza da analisi txiki bat egitea: egia jakitera iritsiko bagara, ez dago fio izaterik Polizia ustel eta parte baten interesen aldekoarekin. Sistemaren barruan egonda ere, sistemaren ertzean bizi den kanpo-begirada bat behar da bertsio ofizialak zer ezkutatzen duen jakitera iristeko.

Horixe da nobela beltzeko detektibearen perspektiba ideologikoa, bere jatorrian.

## CHANDLERREN MARLOWE - 1

Kaliforniako goi-burgesiaren *txantxulloak* ikertzen ibili ohi da Marlowe, eta harentzat diskrezioa pistola baino lanabes beharrezkoagoa da. Diskrezioa gorde beharrak mokokaldi gogoangarria dakar, *Ez adiorik*

nobelaren 5. kapituluaren, Marloweren eta bi poliziaren artean, Green sarjentua eta Dayton detektibea.

- Galderak erantzun eta kitto, Marlowe. Errutinako ikerketa bat egiten ari gaituk. Ez duk beste ezer jakin beharrik.

Hori Dayton detektibeak dio. Marloweri ez zaio gustatzen, "Kafetegi handi bateko beste puntan ikusi hutsarekin aski izango nuen hortzetan ostikoa emateko gogoia izateko", dioskunez.

Mantso-mantso jaiki eta liburu-apaletara hurbildu nintzen. Kaliforniako Kode Penalaren ale enkoadernatua hartu nuen. Daytoni luzatu nion.

- Erakutsiko al didazu, mesedez, galderak erantzutera behartua nagoela esaten duen atala?

Legeari buruzko halako eztabaida mamitsu bat dator ondoren, hiritar guztiak behartuta daudela Poliziarekin elkarlanean aritzeko, Daytonek, obligaziorik ez dagoela eta Poliziak koakzioa erabiltzen duela, Marlowek. Daytonek barre egiten dio:

- Ez dik ezer esango, sarjentua. Lege liburu hori irakurri dik. Beste askok bezala lege liburu bat irakurri eta legea hori dela uste dik.

Probokazioa gorantz doa eta gertatu behar zena gertatzen da.

Zutitzen hasi nintzen. Ez nengoen orekan oraindik hark jo ninduenean. Ezkerkada zuzen bat erantsi eta aurpegia jirarazi zidan. Zintzarri hotsa entzun nuen baina ez afaritakoa. Balantzak eginez eseri eta burua astindu nuen. Dayton han zen artean. Orain barrez ari zen.

Azkenean eskuburdinak jarri eta atxilotuta daramate, Gregorius kapitaina izeneko baten aurrera:

Giza hilketako Burua urte hartan Gregorius kapitaina zen, gero eta bakanago bihurtzen ari zen txakur klasea, baina inolaz ere ez erabat ezkutatua, delituak argitzen dituen argi fokoa eta porrak erabiliz, eta giltzurdinetako ostikoak, belaunkadak hankatar-tean, ukabilkadak plexo solarrean eta ipurtxuntxurrean makilkadak emanaz.

Koadroa aski argi geratzen da. Interesgarria da, puntu honi dagokionez, azpimarratzea Chandler oso zehatza eta arduratsua zela detektibeen egiazko gorabeheri buruz: eskubideak eta betebeharrak legearen aurrean, bezeroarekiko deontologia, lizentziak eskuratzeko eta armak eramateko baimenak, eta abar.

## CHANDLERREN MARLOWE - 2

Spade Bogarten irudiarekin identifikatzen badugu, Philip Marlowe Robert Mitchum ohi da gure iruditerian (nahiz eta beste hainbat aktorek ere jokatu zuen Marloweren papera, Elliott Gouldek, eta bestek). *Ez adiorik* nobelan (1953), Philip Marlowek bere burua aurkezten du, eta beste zertzelada bat gaineratzen dio detektibe-polizia harremanari, gorrotoaz aparte, detektibeak, mendekoa izanik eta sistemaren barruan autoritaterik ez duenez, Poliziaren laguntza behar izaten baitu noiz edo noiz, hala ere, eta gogoz kontra izan arren:

- Ikertzaile pribatua naiz eta bada denbora puska bat naizela. Otso bakartia naiz, ezkongai, heldutasunera hurbil-

tzen hasia eta aberastu gabea. Behin baino gehiagotan izan naiz espetxean eta ez naiz dibortzio kontuetan lanean aritzen. Edari biziak, emakumeak, xakea eta beste zenbait gauza gustatzen zaizkit. Txakurrek ez naute oso gogoko, baina ezagutzen dut ondo konpontzen naizen pare bat...

Txakurrek ez dute oso gogoko, baina pare batekin konpontzen da. Beharko.

Chandler, izatez, zaharrena da idazle hauen guztien artean, 1888an jaio zelako; alabaina, 1939. urtera arte ez zuen argitaratu bere lehen nobela, *Betiko loa*, non Marlowe agertu baitzen lehen aldiz.

## HAMMETT ETA EPAILEAK

*Uzta gorria*-n ez dira poliziak ustelak eta inutilak diren bakarrak. Epailleak eta sistema judiziala ere ez daude oso aparte. Continentaleko agentearen estrategia hiriko gangsterrak elkarren aurka jartzea da. Horretarako informatzaile bat lortu du, Dinah Brand. Ezin esan Continentalekoa aingeru bat denik, preseski, baina gauzak argi ditu:

Badut Dinah Brandi zaborreria gehiago lote berean erosteko aukera. Baina edozein epaileren aurrera eramatea alfer-lana da, leporatzeko edozein gauza edukita ere. Epaitegiak erosita dauzkate eta horrez gain epaitegiak guretzat mantso-egiak dira.

Gutako zenbatek izenpetuko genuke esaldia, orain, 85 urte geroago? Hammettek, azken batez, sistema salatzen du.

## HAMMETT, McCARTHY ETA SORGIN EHIZA

Dashiell Hammett Amerikako Alderdi Komunistako militantea izan zen, eta hori dela eta Jardun Antiamerikarren Batzordearen aurrean deklaratzera deitu zuten, jakina denez.

Liburu batek biltzen ditu bere deklarazioak (*Interrogatorios*, Errata naturae editores, 2011, Madril).

Hammett bitan deitu zuten McCarthyren Jardun Antiamerikarren Batzordera deklaratzera. Lehena, 1951ko uztailaren 9an izan zen. Deklarazioak ez dauka ezer apartekorik: Hammettek eta beste hainbat-tek preso egondako komunista batzuen baldintzapeko



askatasunerako fidantza ordaindu zuten; komunista presoek, behin kalean, ospa egin omen dute eta epai-leak fidantza ordaindu zietenak kartzelatu nahi ditu. Interrogatorioan Hammettek ukatu egiten du, behin eta berriz, fidantzen dokumentuan dauden izenpeak ezagutzen dituela, formula errepikakor bat erabiliz: "Uko egiten diot galdera erantzuteari, Estatu Batuetako Konstituzioaren bosgarren zuzenketak ematen dituen eskubideen babesean, erantzunak inkriminatzen ahal nauelako". Deklarazioak ez dauka ezer apartekorik Hammetten tinkotasuna ez bada: eutsi egin zion eta kartzelara eraman zuten interrogatorio honen ondorioz, sei hilabeterako.

Bi urte geroago, 1953ko martxoaren 26an, berriz deitu zuten. Oraingoan McCarthyk berak ere parte hartu zuen interrogatorioan, eta galdera-erantzunak askoz interesgarriagoak dira. McCarthyk eta enparauek presionatu egiten dute bere militantzia onardezan, sistema komunista hobe dela uste duela aitordezan, komunismoaren propaganda egiten duela onardezan; egile eskubideengatik zenbat kobratzen duen esan dezan eskatzen diote; aurpegiatzen diote Estatu Departamentuak haren liburuak erosi dituela, eta orduan galdetzen diote ea egile eskubideengatik ko-

bratu duen dirua Alderdi Komunistaren kutxara iritsi ote den. Ahal duen moduan defenditzen da Hammett, Konstituzioak ematen dizkion eskubideen babesa inbokatuz, batzuetan, halako hitzezko esgrima-saio bixiak eginez, beste batzuetan. Honetan bezala (testua aipatu *Interrogatorios* liburu horretatik moldatu dut):

MCCARTHY: Beste galdera bat egingo dizut, Hammett jauna: zuk gastatu izan bazenitu urtean ehun milioi dolar baino gehiago, guk gastatu ditugun bezala komunismoaren aurka borroka egiteko programa batean, eta zu bazina programa horretako burua, erosiko al zenituzke hirurogeita hamabost egile komunistaren obrak, eta mundutik zehar zabalduko zenituzke, gure zigilu ofizialarekin, onespena emanetz? Edo nahiago duzu galderari ez erantzun?

HAMMETT: Komunismoaren aurka borrokatzen ariko banintz, ez nion jendeari libururik irakurtzen utziko, ez egile horienik, ezta beste inorenik ere.

Erantzun zorrotzak literaturaren idealismoarekiko fede eder bat erakusten du, segurutik guk -ia denok-galdu egin duguna.

Frances Stonor Saundersek esaten duenez, bigarren galdeketa hartan ere ez zuen izenik esan, ez zuen inor salatu.

Cohneke eta Schineke exijitu zuten, orduan, haren liburu guztiak kentzeko Estatu Departamentuko liburutegi guztietatik. NBCK *The Adventures of Sam Spade* izeneko irrati-emisioak eten zituen, eta orduan Hammetteke bere diru-iturri nagusia galdu zuen. Bi gerratan Estatu Batuen alde borrokatu eta gero, pobrezian hil zen, 1961ean.

HORACE McCOY  
*ZALDIAK AKATZEN DITUGU, BA...*

Chandler baino bederatzi urte gazteagoa zen Horace McCoy eta Hammett baino hiru gazteagoa, apenas. Bere nobela entzutetsuenetako bat, *Zaldiak akatzen ditugu, ba*, 1935ekoa da, Hammetten lehenak baino 5-6 urte geroagokoa bakarrik. McCoy, beraz, nobela beltzaren lehen belaunaldi horretakoa da, bete-betean. *Zaldiak...* horretan, miseria ekonomikoa eta abusua da indarkeriaren jatorria eta krimena eragiten duena. Protagonista ez da detektibea, ezta polizia ere,

hiltzera kondenatu duten gizajo bat baizik, Robert Sy-  
verten.

HORACE McCOY  
*HOBE NUEN ETXEAN GELDITU*

1931ko martxoaren 25ean, immigrante zuri eta beltz batzuen taldea klandestinoki bidaiatzen ari zen Chattanooga-tik Memphisera. Bidaia hauek klandestinoak baino toleratuak omen ziren. Gazte zuri batzuek salto egin zuten trenetik zelai baten erdian, eta gazte beltz batzuen erasoak salatu zuten autoritateen aurrean. Paint Rock izeneko herrian (Alabama), poliziek trenea geldiarazi zuten, eta bi neska gazte zuri topatu zituzten bagoi baten barruan, Ruby Bates eta Victoria Price. Neskek salatu zuten beltzek taldean bortxatu zituztela. Gazte beltzak atxilotu, juzgatu eta heriotza-kondena jaso zuten.

Estatu Batuetako Alderdi Komunistaren eta beste-  
ren presioari esker, epaiketa deuseztatu eta errepika-  
tu egin zen.

Neskak prostitutak omen ziren, eta haien jarduna delitua zenez, beltzak akusatzea besterik ez omen zitzaien bururatu.

Luze jo zuen prozesu korapilatsu eta aurreiritziz beteriko baten ondoren, gazte beltzak, errugabeak zirenak, heriotza-kondenatik libratu ziren, baina kartzelara joan ziren. Clarence Norris 1975ean indultatu zuten, treneko gertaera jazo eta 45 urte geroago. Bera izan zen kartzelatik ateratzen azkena.

Gertaera hau oso ezaguna eta aipatua izan zen Estatu Batuetan. *Scottsboroko mutilak* izenarekin egin ziren ezagunak bederatzi gazte horiek.

Scottsboroko mutilen aldeko jai batean hasten da ezagutzen Ralph Carston, *Hobe nuen etxean geratu* nobelako protagonista, Hollywoodeko giroa.

Jai horretan bertan, Carston inozoak bi gidoilari drogosoren arteko solasa entzuten du. Itxuraz baizik ez direla anti-naziak leporatzen diote elkarri; itxuraz, produktore judutarren lobbyari gustua emateko.

Itxurakeria, gezurra, hipokresia, sal-eroskeria eta klase guztietako ustelkeria moralak dira nobela horren gaiak.

Eta frakasoa. Eta inozokeria. Eta sekula erantzule-rik ez duen berezko krudelkeria eta indarkeria. Izen hoberik ezean “sistema” deitzen dugun horrenak.

Ordea, nobela osoan ez dago detektiberik, ez poli-ziarik.

Ez dago armarik.

Ez dago krimenik.

Ez dago egiazko pelearik, ez indarkeriazko esze-narik.

Are, ez dago intrigarik; krimenik ez dagoenez, ez dago krimena nork egin duen jakitera bideratutako tramarik.

Nobela *I should have stayed home* izenarekin argi-taratu zen 1938an.

Gaztelaniaz *Luces de Hollywood* izena ipini zioten, eta 1970ean argitaratu zuten Argentinan Tiempo Contemporáneo argitaletxekoek, haien “Serie negra”ren barruan; eta 1980an Espainian Bruguera, “Novela negra” bildumaren baitan. Euskaraz Igelak argitaratu zuen, 2002an, “Sail Beltza” bilduman.

JAMES M. CAIN

Cain ere hasierako belaunaldi horretako partaidea da. 1892an jaioa, Hammett baino bi urte zaharragoa zen eta Chandler baino lau gazteagoa. Bere lehen nobela, ausaz ezagunena, *Postariak beti deitzen du bi aldiz* da, 1934koa. *Double Indemnity* 1936koa da. Bietan, hala edo nola, eskema errepikatzen da. Gizonezko batek, badaezpadako bat lehenaren kasuan, aseguru-agente bat bigarreanean, krimen bat egiten du, *femme fatale* batek eragindako grinaren ondorioz. Adulterioa eta asesinatoa, sexuak eta motibazio ekonomikoak eragindakoak.

Berez, gizon-emakume horiek ez dira kriminal profesionalak, egoerak eta zirkunstantziak hartaratuak baizik, eta haien ikuspegietatik kontatzen zaizkigu gertaerak.

## XX. MENDEAN JAIOTAKOAK

Zaharretik gazteenera sailkatuak, Jim Thompson, Chester Himes, Ross Macdonald eta Patricia Highsmith, denak XX. mendean jaiotakoak dira, eta *grosso modo* esanda, aurrekoak -denak XIX. mendea-

ren bukaeran jaiotakoak-, baino hamarkada bat gero-ago argitaratzen hasiak.

Irizpidea aski zalantzazkoa da, nahi bada (jaio zireneko mendea), bereizketa bat egiteko, idazleak eta haien obrak jarraitutasunean etortzen direlako, baina onar dezagun aipatu ditudan lau idazle horiek direla, nolabait esan, nobela beltzaren bigarren idazleen uholdearen erakusgarri gorenak.

Beste bat izan liteke, hobea ausaz (baina aski antzekoa, hala ere), II. Mundu Gerra baino lehen, depresio garaian, argitaratzen hasi zirenak eta ondoren hasi zirenak bereiztea, baina orduan beharbada liburuez hitz egin behar litzateke, idazleez baino gehiago.

Jim Thompsonen, beste batzuek bezala, ez zuen arrakasta askorik ezagutu, frantziarrek 70eko hamarkadaren bukaeran berriz deskubritu zuten arte. Thompsonen nobelagintzan beren krimenak lehen pertsonan kontatzen dizkiguten hiltzaile patologikoak edo pertsonaia anormalak eta ankerrak nabarmentzen dira, askotan zehazten ez den trauma baten ondorioz erailketa, indarkeria edo intzestura iritsi direnak. Nire ustez nabarmena da Freuden eragina haren nobeletan.



Chester Himesek indarkeria eta arrazismoa salatzen ditu. Lehen atal honetan aztertzen ari garen idazlearen artean, polizia protagonismo erlatiboki positiboa ematen dien idazle bakarra da -gero edukiko dugu denbora baieztapen hau matizatzeko-: *Coffin Ed Johnson* edo *Grave Digger Jones* Harlemgo polizia beltzak.

Ross Mcdonaldek, Hammetten eta Chandlerren bitartek, Lew Archer detektibea baliatu zuen bere proiektu literarioan (bere detektibearen izena Sam Spade-aren laguntzailea den Miles Archer detektibearen etiketatorria dela ematen du).

Patricia Highsmithen pertsonaia famatuena Tom Ripley da, tipo ankerra, ambigua, iruzurgilea, homosexuala beharbada, hiltzaile patologikoa eta buruz azkarra.

## JIM THOMPSON - 1

Neurri handi batean, frantziarrei zor omen die Jim Thompsonen obrak egilea hil eta gero lortu duen fama; ia guztiz ezezaguna omen zen; 1970. urtean Parisera joan zen bizitzera, eta han zegoela, Marcel Duhamelen eskutik, Gallimard argitaletxeak erabaki

omen zuen *1280 arima* nobela argitaletxearen *Série noire* bildumaren 1.000. titulua izatea.

Geroztik gero eta ezagunagoa egin da Thompson, eta ospe postumo hau (1977an hil zen) Euskal Herrira ere iritsi da, Igela argitaletxearen eskutik, eta Juantxo Ziganda, Xabier Olarra, Idoia Gillenea eta Migel A. Elustondoren itzulpenei esker. Hemen sartutako pasarteak euren itzulpenetatik hartuak dira.

Arte obra bere testuinguru historikotik aparte ez dagoela ulertzeko aukera ezin hobea eduki zuen Thompsonek. Haren biografoek azaltzen dute aita *sheriff* ustela eduki zuela, eta aitaren abentura eta gorabehera ekonomikoen araberako bizimodua eraman behar izan zuela, bizitzaren lehenengo urteetan. Gazte-gaztetik hasi omen zen idazten, baina horrekin bakarrik familiaren beharrei aurre egin ezinik, makina bat ofiziotan aritu omen zen: eraikuntzan langile, olio-bidean ere bai, hotel batean morroi, eta beste hamai-ka.

Alkoholikoa izan omen zen, eta komunista militantea ere bai, aldi labur batean bederen, 1936tik 1938ra. McCarthyren sorgin ehizaren garaian salatu egin zuten, 1951. urtean.

1955 aldera, 50 urte betetzear zegoela, hasi omen zen gidoilari, Stanley Kubrickekin (*The Killing, Paths of Glory*). *Ironside* serie ezagunaren ideia harena izan omen zen.

Esaldi hau utzi zuen geroko garaietarako: “32 modu daude historia bat idazteko, eta nik denak erabili ditut, baina trama bat baino ez dago: ezer ez da dirudiena”.

## JIM THOMPSON - 2

Protagonistei dagokienez, Thompsonek, bere nobeletan, beste urrats bat gehiago ematen du. Protagonista ez da bertasio ofiziala zalantzan jarriko duen heroi bat (“antiheroi” bat), delitugilea baizik (*Ihesa*-ko Doc McCoy eta Carol bezala), edo hiltzaile patologikoen tipologia bete-bete sartzan diren *sheriffak* (*1280 arima* nobelako Nick Corey bezala, edo *Hiltzailea nire baitan* nobelako Lou Ford bezala); edo Allen Smith bezalako, bezalako... baina nola definitu Allen Smith?

*1280 arima* eta *Hiltzailea nire baitan* nobeletan, ordena zaintzeko ardura dutenak moralik gabeko hiltzaile ankerrak dira, zuzen-zuzenean.

*Ihesa* 1972an zinera eraman zuen Sam Peckinpah zuzendari estatubatuarrak. Franco garaiko zentsurak ezin eramanik, Docek eta Carolek, lapurrak eta hiltzailak izanik, Mexikora ihes egitea lortzea (hala bukatzen baita nobela), ohar bat gaineratu zuten pantailaren gainean, filmaren amaieran, protagonistek ihesa burutzen dutenean: “Poliziak handik astebetara harra-patu zituen, eta epaiketaren ondoren, San Quintingo kartzelan daude bizitza osoko zigorra betetzen”.

### JIM THOMPSON - 3

Guztiarekin ere, niri deigarria egin zait Thompsonen literaturaren bigarren mailako, nahi bada, ezau-garri hau: pertsonaia eta talde baztertuen gaineko be-giratu maitagarria.

Hemen, adibidez, Juantxo Zigandak itzuli zuen *Ihesa* nobelan, Doc eta Caroli ihesean laguntzeko prest dagoen jende talde bat deskribatzen duenean, nekazari lanak, sasoiaren arabera, han eta hemen egi-ten dituen jende-talde bat da:

Docek jende mota hura ezagutzen zuen; haien artean jaioa zen eta hagitz ongi ezagutzen zituen pertsona haiek. Bizimodua bizirik irautean zuten zentratua. Ez zuten esperantzarik eta ez zuten uste izan behar zutenik ere. Nolabait ere, haiek birrindu nahi zituen gizarte baten barrenean talde autonomo gisara funtzionatzen zuten. Legeak ez zituen babesten; haiendako, zirikatzekeo tresna bat baizik ez zen, mugitu nahi ez zutenean mugiarazten zituena, edo gelditzea komeni ez zitzaienean geldiarazten zituena. Docek ongi ezagutzen zituen. Bazekien nola mintzatu haiekin.

Antza denez, Thompsonnek berak sustrai txerokiak zeuzkan, amaren aldetikoak. Ez ote da indiar edo mestizo talde bat, uzta biltzen-eta hor ibiltzen direnen talde hori?

Ber nobelan, Ma Santis da iheslariei laguntzen dien beste pertsonaia bat. Pertsonaia moldakaitza, moldatu gabekoen saga baten lehena. Beste hainbat nobelatako *sheriffak* hiltzaileak diren bezala, hau da, ordena bermatu behar luketenak arau-hausle nagusiak diren bezala, hemen Ma Santis, gaizkilea alegia, da elkartasunaren eta ohorearen zentzua gorde duen leinu baten ordezkaria:

Ma Santis. Gaizkile baten alaba, gaizkile baten emaztea eta sei gaizkileren ama. Maren semeetako bi poliziarekin izandako tiroketetan hil ziren; beste bi -aita bezalaxe- aulki elektrikoan. Bi gelditzen ziren: bat presondegian eta bestea, Earl, libre. Santistarrak ez ziren gaizkile-gaizkileak, hitzaren erranahi arruntean, jende basa, hezigaitz eta bazterreratuak baizik. Ez zuten sekula mesede bat ahazten, ezta irain bat ere. Benetako ohorearen zentzua zuen jendea. Gaizkileen munduko perla arraroa ziren: beste garai batean bizi izan balira, itsaslapur, kortsario edo sari-soldaduak izanen ziren. Haien zorigaitza, eta akaso nazioarena ere, inoren arrazoi eta beharrak kontuan hartu gabe ezarritako ordenamendua- rekiko adostasuna bultzatzen zituen zibilizazio batean jaiotzea zen.

Alegia, nazioaren zorigaitza, ordenamendu injustu bati men egin beharra, edo gaizki ulertu dut?  
Sakonki politikoa da Thompson, honelakoetan.

## JIM THOMPSON - 4

Kaliforniako estatu handian, Estatu Batuetako aberatse- na eta populatuena seguru askorik, buruko gaixotasuna

duten instituzioko eriek hilean gehienez hogei edo hogeita hamar minutuz ikusten dute medikua -batere ikusten badute, behintzat-, eta komunak hain dira gutxi non lurtean egin behar izaten dituzten txizak eta kakak. Aitzitik, gobernadoreak lekua "ikuskatzera" joan behin, eta zelaiak berdez pintatuta zeuden -bai, pintatuta, benetan-, haren begietara atseginago gerta zedin. Eta lekua hain egoera onean zegoela irizti zion, are gehiago murriztu baitzuen aurrekontua!

Buru osasunaren arloko erizain edo profesional ez-kertiar baten salaketa lirudike, baina Thompsonen *Amorruaren ume* nobelaren pasarte bat da; bestela ere gordin askoa den nobela, ezin beltzagoa, heriotzarik ez dagoen arren.

## CHESTER HIMES - 1

Hudson ibaiaren ertz altuetan dauden unibertsitateko eraikinen erdian kokaturik dagoen Riversideko Elizatik ekialdera begiratu, ibar bat ikusten da, non etxegain grisek olatuak eginez perspektiba nahasten baitute itsas azalaren itxura emanaz. Azal horren azpian, bizileku kirastunak diren ur zikin haietan alegia, bizimodu desesperatu eta bakerik gabea

egiten duen herri bat dago, beltzez osatua, milioikada piraña goseti dabilen haztegi aseeginaren parekoa. Beren barrenak jaten dituzten ahoitsuak. Hor eskua sartzen duena, esku-motz bihurtzen da.

Horixe da Harlem.

Aspaldi dela euskaratu zuen Jexux Izagirrek Harlem deskribatzen duen pasarte ezaguna, *Imabelleren amodioz* liburuko ezagunenetakoa (bon, pasarte ez ezik, liburua osorik). Merezi du pasarte arretaz irakurtzea, sen poetiko indartsua dariolako: itsasoa diruditen teilatuen azpian herri bat dago, beltzena dena, baita beren burua ere, ñanpa-zanpa irensten duten pirañen ur azpi bat, azpimundu bat, Himesen historien jokalekua. Harlem.

Esango nuke Estatu Batuetako gizartearen arrazismoa dela Himesen gai nagusia. Beltzen bizi-baldintzen deskribapenean gupidagabe, zorrotz, zitalki poetikoa eta are umoretsua da, trenak etxeetatik zer hurbil pasatzen diren deskribatzen duen pasarte honetan bezala:

Goldyren oihua nahastu egin zen lokomotoraren uluarekin, haien buruen gainetik trena zarata handiz, auzo osoa as-



tinduz, pasa zenean. Han astindu zituen zorriz betetako oheetan lotan zeuden beltzak. Han astindu zituen hezur zaharrak, gihar ahituak, tisiak jotako birrikak, neska ezkongabeen umegai bare ezinak. Han astindu zituen sabaietako igeltsua eta adreiluzko hormen masa. Han astindu zituen horma tartean habia egiten duten arratoiak, sukaldeko haraskan arrastaka dabiltzan labezomorroak eta janari hondarrak. Han astindu zituen, leihoen markoetan, erleen pare pilaturik hibernazioan izaten diren euliak. Han astindu zituen, larru beltza ikertzen ibiltzen diren odolez asetutako zimitx lo-diak. Han astindu zituen arkakusoak, baita saltoka jarri ere. Han astindu zituen krakaz betetako estera gainean lotan zeuden zakurrak eta lokartutako katuak. Han astindu zituen ataskatutako komunak harik eta libratu arte.

## CHESTER HIMES - 2

Himes da poliziak protagonista izateko aukeratzen dituen bakarra, lehen garaietako nobela beltz amerikarrean behintzat. *Coffin* (hilkutxa) Ed Johnson eta *Grave Digger* (lur-emailea) Jones dira.

Lehen aldiz *Imabelleren amodioz* nobelan agertu ziren, 1957an. Himesen lehen nobela 1945ekoa zen,

eta hau, *Imabelleren amodioz*, alegia, egilea jada Parisen bizitzen jarri zenean argitaratu omen zen. Thompsonen kasuan bezala, esaten dute Marcel Duhamelek bultzatuta idatzi zuela lehen nobela beltz hori.

Gero beste bost gehiago idatzi zituen pertsonaia horiekin, azkena 1969an. Johnson eta Jones pertsonaiek bilakaera nabarmena eduki zuten. Hasieran, *Imabelleren amodioz* horretan, bigarren mailako pertsonaiak baino ez dira. Poliziarik, eta batez ere polizia zuririk, batere errespetatzen ez duen Harlem batean (“Txakur zuriaren aurrean gezurra sartzeko garaian anaia batek besteari laguntzea zen Harlemgo legea”), polizia beltz hiperbiolentoak dira (“lehenbizi tiro egin, eta gero hilotzei galde egiten zieten horietakoak ziren beltz horiek”), ez bereziki sinpatikoak:

Harlemen esaten zenez, Coffin Eden pistolak harria ere garbituko zukeen, eta Grave Diggerrenak hari lur emango. Beren zerga jasotzen zuten, bestela ez ziren benetako txakurrak izango, jendearen funtsezko beharrak asetzeko ofizioetan aritzen zen nagusi-jendearen eskutik, alegia: joko-zuloen jabeenetik, eta putetxe, legez kanpoko loteria saltzaile eta loteria antolatzaileenetik. Ordainetan, karterazale, lapur, es-

kuluze, bostekoa egiteko asmotan zetozen arrotz guztiei, hortzak erakutsi behar izaten zizkieten bi zakur beltz haiek. Bi haiek ez zuten inongo oilarren kukurrukurik ametitzen beraien jotzen zutena ez bazen.

### CHESTER HIMES - 3

Alde batera, Harlemen ordena pixka bat -ordena pixka bat edo- jartzen ahal duten bakarra bi polizia beltz izateak kolonizazioaren ondorengo Afrikako gobernuak ekartzen ditu gogora. Kolonizatzaileek, Afrikako herrialdeetatik erretiratuta, bertako beltzen gobernu ustel eta ankerren bidez nola kontrolatu duten egoera haien interesen alde, halako zerbait egiten bide dute polizia zuriek Harlemen, Jones eta Johnson mediante.

Interpretazio apur bat bortxatua da, badakit.

Bestalde, Jones eta Johnson egoki eta erabilgarri izango zitzaizkion ordurako Frantziatik idazten zuen Himesentzat.

Nobelatik nobelara protagonismoa hartzearekin bat, haien umore kaustikoa eta kritikoa ere hobetzen doa.

Hau 1969ko *Blind Man with a Pistol* (*Itsua pistola batekin*) nobelakoa da. Zaintza lanean ari dira autoan, eta gizon beltz bat ikusi dute ondotik pasatzen, korrika, eskuan praka gris batzuk dituela. Ez doaz lapurra-  
ren atzetik, ez horixe, eta horren ordean, beste hau  
esaten diote elkarri:

- Putetara joanez gero, ikasi behar den lehena da zer egin diruarekin txortan ari zaren bitartean.
- Erraza da -esan zuen Grave Diggerrek-. Behar ez duzuna etxean utzi.

Hau ere ber liburutik hartua da. Anderson beren jefe zuriarekin ari dira:

- Suposatzen dut ikasi duzuela nork sortu zuen iskanbila -esan zuen Andersonek.
- Betitik jakin izan dugu nor izan zen -esan zuen Grave Diggerrek.
- Baina ezin dugu ezer egin -gaineratu zuen Coffin Edek.
- Eta zergatik ez?
- Hilik dagoelako -erantzun zuen Coffin Edek.
- Nor zen?
- Lincoln -arrapostu zuen Grave Diggerrek.

- Ez gintuen askatu behar, ez bazuen guri jaten emateko asmorik -esan zuen Coffin Edek.

## CHESTER HIMES - 4

Izan ere, kritika ezin zorrotzagoarekin, poesia ankerrarekin eta miseriaren erretratu naturalistarekin batera, sarkasmo dosi handiago edo txikiagoarekin, umorea da Himesen nobelagintzako beste indargune bat, *Imabelleren amodioz* nobelako pasarte honetan bezala. Jacksonek, protagonistak, lehen delituak egin ditu Imabelleren amodioz, txikiak oraindik, eta apaizaren laguntza eskatzen du; ministro anabaptista bat, Gaines agurgarria:

- Jauna, lagundu gure anaia honi, dituen estuasunak gaindi ditzan.

- Amen -Jacksonek.

- Lagundu, Jauna, behar duen dirua lege onez lortu dezan.

- Amen.

- Lagundu, Jauna, bere andreak lehengo senarra aurkitu dezan, dibortziatu eta biak zuzen bizi ahal izateko.

- Amen.

- Bedeinka itzazu, Jauna, diru eta emakumeen erruz hainbeste arrisku igaro behar izaten dituzten Harlemgo pekatariak.

- Amen.

Gaines agurgarriaren neskameak atea jo eta burua atera zuen.

- Afaria pronto dago, jauna -esan zuen-. Gaines andrea mahaira eserita duzu.

- Amen -Gaines agurgarriak.

Eta Jacksonek oihartzunaren antzera "amen" errepikatzea baino ez zuen izan.

- Jainkoak elkarri laguntzen dietenei laguntzen ziek, Jackson anaia -Gaines agurgarriak, afaltzera presaka ateraz.

ROSS MACDONALD

LEW ARCHER - 1

Ross Macdonald 27 urte gazteagoa zen Chandler baino. Lew Archer detektibea sortu zuen. Ordurako Marlowek 10 urte zeuzkan.

Macdonald Chandlerren jarraitzaile peto-petoa da. Archer Kaliforniako goi burgesiaren trapu zikin zaha-

rrak garbitzeaz arduratzen da. Beren nobeletan, usu, milioidunak, alkoholikoak eta hiltzaileak nahasten dira, urte asko lehenago gertatu eta gaizki itxi den istorio birjaio baten eszenatokian, zeinetan ez baitago jakiterik, benetan, nor noren semea edo alaba den, non krimenik aberranteenak intereseko geruza batek estaltzen baititu. Archerrek ere topaketa gogorra dauka poliziarekin *Galton kasua*-n, esaterako; baina gehiago da poliziak okertu direlako, eta detektibeak tontotzat hartu eta adarra jotzen dielako, Conger delako bati bezala:

Congerrek kupidaz begiratu zidan. Drogazale bat nintzen. Poliki-poliki zalantza erakutsi zuen kupidaren ordeiz. Konturatzen hasia zen ziria sartu ziotela. Bat-batean, lotsagorritu egin zitzaion aurpegi beltzaran hura. Pilota bat egin zuen ukabilaz belaunaren gainean. Ikusi nuen nola tenkatu zitzaizkion gihar sendoak alkondararen sorbaldaren azpitik. Okotsa estutu nuen, ukabilkada jasotzeko prest. Alabaina, ez ninduen jo.

Baina, bai *Galton kasua* delakoan (1959koa) nola *Hil aurreko begirada*-n (1969), detektibearen eta poliziaren arteko talka bigunago da; gehiago dago lotuta

bezeroarekiko leialtasunarekin eta konfidentziasunarekin, erabateko errefusa batekin baino. Eta detektibearen eta, gutxienez, zenbait poliziaren arteko lan-kidetza ez da hain petrala. Uste izatekoa da II. Mundu Gerran garaile atera eta gero, gizarte giroa apur bat lasaituko zela Estatu Batuetan. Chandlerrek Gregorius aurkeztean egindako oharra ere, lehen aipatu duguna (“gero eta bakanago bihurtzen ari zen txakur klasea, baina inolaz ere ez erabat ezkutatua”), norabide horretan doala ematen du.

*Hil aurreko begirada* nobelan ere, Lackland kapitainaren eta Archerren artekoek ez dute laztasun falta, informazio ezkutatzek, legearen interpretazioak eta beste, baina topaketak bigunagoak dira.

- Lackland naiz, detektibe kapitaina. Entzun dudanez, gorriak ikusarazi dizkiezu gure mutilei.

- Alderantziz zela uste nuen.

Aurpegia aztertu zidan.

- Ez dizut inolako aztarnarik ikusten aurpegian.

- Abokatuari deitzeko eskubidea daukat.

- Zure laguntza jasotzeko eskubidea daukagu. Saia zaituz guri ziria sartzen, eta ipurdiz gora amaituko duzu, lizentziarik gabe.



Chandlerrekin konparatu, eta ostia pare batean dago aldea.

## ESTATU BATUAK 1929 - ESTATU BATUAK 1950

Eric Toussaint ekonomialariak eta bestek egindako txosten baten arabera, 1929an Estatu Batuetan populazioaren %10 -aberatsenak, noski- errenta guztia- ren %40-50en jabe zen; 1950ean ehuneko hori %35etik azpikoa izatera pasatu zen.

Beharbada ez legoke gaizki detektibeen jokabidea eta polizien eta detektibeen arteko harreman gatazkatsuak errentaren banaketaren arabera epaitzea. Orain xeibrekeria bat dirudi, ia; garai batean ikuspegi hau azterketa serio guztien osagarria zen.

Toussaintek eta enparauek diote, lan berean, 2007-2008. urteetan Estatu Batuetan %10 aberatsena iristen ari zela 1929ko errenta mailetara. Beharbada Estatu Batuetako literaturan egon daitezke gaur, argi- taletxe handiek promozionatzen dituzten egile ospe- tsuen azpian ezkutatuta, etorkizuneko maisuak.

ROSS MACDONALD

LEW ARCHER - 2

Diruaren eta ongizatearen gorakadarekin, eta Poliziaren hala-nolako biguntzearekin, kezka politikoak ere beste modu batez ikusten dira. Ikusi, esaterako, zaletasun literarioak zituen, Rimbaud eta Baudelaire miresten zituen eta desagertu zen Tony Galtoni buruzko elkarrizketa hau:

Tonyk teoria bat zeukan, hots, herria beste gerra zibil batean murgilduta zegoela, aberatsen eta pobreen arteko gerra.

Alabaina,

- Tonyk ez zuen sinesten indarkerian. (...). Tonyk ez zituen gogoko Ameriketatik kanpo bizi ziren amerikarrak. Beti esan ohi zuen hurbilago egon nahi zuela Ameriketatik. Depresio garaian izan zen, gogoratu. Tonyk sutsuki defenditzen zituen langileen eskubideak.

- Ezker muturrekoa zen?

- Zuk hala deituko zenion, nonbait. Baina ez zen komunista, hori adierazi nahi baduzu. Tonyk uste zuen dirua edukitzeak bizitzatik kanpo atxikitzen zuela. Gorroto zuen esnobismoa; horregatik, besteak beste, ez zegoen batere pozik unibertsitatean. Askotan esaten zuen jende arrunta bezala bizi nahi zuela, eta jendartean galdu.

Idealista bat, baina ez komunista, otoi. Segurutik amerikarren bizi-baldintza materialak askoz hobekak izango ziren depresioaren garaian baino, ordea gerra hotza eta antikomunismoa hor zeuden. Bestalde, hippyen mugimenduaren eta Vietnamen aurkako protestaren bezperan gaude.

Horrek sortu gizarte polarizazioaren aztarnak ere badaude nobelan, Trask jaunaren honetan ikusten den bezala:

- Gaur gauean atxilotzea espero dute. Hala espero dut, eta harrapatzen dutenean, gas-ganbaran sartzea. Badakigu guk biok zergatik dabilen hain zabaldua krimena eta hilketa. Epaitegiek ez dute inor zigortzen, eta zigortzen dutenean, ez dute heriotza zigorra ezartzen. Eta heriotza zigorra ezarrita ere, legea ez da inolaz betetzen. Epaileek kondenatutako hiltzaileak aske ibiltzen dira, jadanik ez diote inori gasa ema-

ten, ez da harritzekoa legea eta ordena guztiz lur jota ego-  
tea.

ROSS MACDONALD  
LEW ARCHER - 3

Baina dirua da *Hil aurreko begirada* nobelako egiazko protagonista, kontatzen den peripezia kiribil-  
duaren gainetik. Zehatzago esateko, diru gose alima-  
le eta neurrigabea, nobelako pertsonaia eta egoera guztiak zeharkatzen dituen, motibazio bakarra. Denak dabilta hainbat urte lehenago iruzurgile batek bankuari ostu zion milioi erdi dolarren atzetik. Pertso-  
naien ahotan askotan ageri da diruaren kezka. Adibi-  
deak oso ugari dira.

“Ez dago jendeak diruaren truke egingo ez due-  
nik”, dio Williams andreak.

“Badirudi dena beti diruarengatik dela, ezta? Ba-  
tzuetan nahiago nuke berriro pobre izatea!”. Baina  
batzuetan, bakarrik. Hau Irene Chalmersek dio, zerbi-  
tzarien alabak, gizarte eskalafioan gora egindakoak.

Swain andreak ere dirua nahi du:

Baina Swain andreak dirua nahi du argazkien truke.

- Zenbat diru?

- Diru piloa. Mila dolarretan edo aterako nizkioke.

- Horixe barregarria! Zoratuta egon behar du emakume

horrek.

Eta denak antzera. Dirua protagonista nagusi. Horrek ematen dio liburuari erabateko gaurkotasuna.

PATRICIA HIGHSMITH

RIPLEY - 1

Ripleyren trebetasunak beste gainerako guztien zozokeria du oinarri: aski liteke Tom Ripley aurrez aurre jartzea Ripley eta Dickie Greenleaf, biak, ezagutu dituen norbaiten aurrean, iruzur kolosala agerian uzteko. Baina ez zaio horrelakorik egiterik bururatzen, ez Italiako Poliziari, ez Frantziakoari, ez Greenleaf aitak kontratatzen duen detektibeari, ez Marge maite-minduari, ez Dickieren aita koitaduari... Inori ere ez.

Ez dio halakorik aurpegiratu kritikak sekula, nik dakidala. Eta nik ere ez diot bene-benetan aurpegiratzten: liburuaren beste bertute batzuk daude xeheta-

sun horren gaineratik; batez ere, psikopata baten erretratua hain zorrotz eta hain natural egitea. Eta nik ez diodala Patricia Highsmithi ukatuko literaturak ekarri ohi duen errealitatearen etenaz gozatzeko pribilegioa, azken-azkenik nire probetxuan ere bada-eta.

Dena den, psikopatak protagonista izate horretan, bada, nire ustez, Highsmith baino lehenagokorik, eta handiagorik igual: Jim Thompson, alegia. *Hiltzailea nire baitan* 1952koa da, esaterako, eta *Ripley trebea*, 1955koa.

PATRICIA HIGHSMITH  
RIPLEY - 2

Irakurri dut nonbait Patricia Highsmithek ez zuela maite bere obra ikustea nobela beltzaren barruan sailkatua, lehen ere idatzi dudan bezala.

Hala ere, askotan sailkatu dute etiketa horrenpean, dela erosotasunez, dela merkataritza-helburuz.

Niri Ripleyren gorabehera psikologikoek beti ekarri didate gogora, ezagutzen dudan apurrean, Henry Jamesen narraziogintza.

Ez alferrik Ripleyk, Europarako bidaiia hasten denean Greenleaf-en semearen bila, aitaren negozioira berriz ekartzeko mandatuarekin, itsasontziko liburute-gian Jamesen *Enbaxadoreak* liburua eskatzen du.

*Enbaxadoreak* 1903ko liburua da, Jamesek 60 urte inguru zituenean idatzitakoa, eta haren nobela onenetako bat, kritikari gehienek arabera. Bi nobeletako hasiera oso antzekoa da: protagonistaren bidaiia bat Europara, negozio gizon baten premua, Europan dagoena, Estatu Batuetara, aitaren negozioetara itzul dadin konbentzitzeko.

Beraz, arrazoi zeukan Highsmithek. Bere nobelak ezin daitezke epaitu ohiko nobela beltzaren ildoan arabera.

BERAZ...

Nobela beltzak, hasiera batean, jatorrian, gizartearen gaineko begirada kritiko bat proposatzen du, nolabait esan gizartearen ertzean dagoen pertsonaia baten ikuspegiaren bidez; pertsonaia hori, askotan detektibe bat da, baina salbuespenez ez bada, inola ere ez da polizia; are, begirada hori proposatzen duen

personaia hori, edozein izanik ere, poliziaren antagonista da, horixe da bere ezaugarri garrantzizkoenetakoa, jatorrian helburuetako bat baita ordena zaintzeaz arduratzen direnen ustelkeria, gehiegikeria eta moral eskasa ikusaraztea eta azpimarratzea, bertsio ofiziala egia estaltzeko erabiltzen den iruzurra baino ez dela nabarmentzea.

Hau dena, Bigarren Mundu Gerra baino lehenagoko garaia dagokiona da, depresio handiaren garaian.

Aurrerago, gerra irabazi eta gero, eta jatorrizko ezaugarri hau galdu gabe bada ere, protagonistaren eta Poliziaren arteko antagonismoa pixka bat leuntzen hasten denean, gaiaren gordinak markatzen du nobelaren paisaia eta giroa: miseria ekonomikoa, botere-tsuen gehiegikeria eta abusua, hipokresia, itxurakeria, sal-eroskeria, adulterioa, intzestua, talde batzuen marjinazioa, arrazismoa, diru-gose neurrigabea...

Protagonistak, detektibeak ez direnean, krimenak egiten dituzten polizia perbertsoak dira, edo miseriak eta egoerak krimenera bidali dituzten gizon-emakume arruntak, edo buru-gaixo patologikoak.

Bestalde, nobela hauek, irakurleri eskatzen dioten jarreraren aldetik errealistak dira salbuespenik gabe; hau da, errealitatea den bezala islatzeko pre-



tentsioa daukate, eta irakurleari konbentzio horretan sar dadin eskatzen diote.

Nobela beltza, jatorrian, horixe zen.

# 70eko hamarkada European

## GENEROA EUROPARTZEKO ARAZOA

Esan ohi da Marcel Duhamel itzultzaile eta editore frantziarra izan zela nobela beltza, *polarra*, boladan ipini zuena Frantzian, 1945. urtean Gallimard etxearen *Série noire* martxan jarri zuelako. Hasieran amerikarrak itzuli eta argitaratu zituzten; baina poliki-poliki frantziarrak ere hasi ziren argitaratzen. Hala, Jean-Patrick Manchette bezalako idazle batengana iristen gara, kasik aho batez nobela beltzaren berritzaile nagusi bezala gurtua Frantzian.

Manchette 42an jaio zen, 71n argitaratu zuen bere lehen nobela, eta 95ean hil zen. Argitaratu zituen hamaika nobeletatik, bederatzi Gallimarden *Série noire* bilduman agertu ziren. 68ko gizona, politikoki troskista eta estetikoki situazionismotik hurbilekoa izan zen.

Manchette berehala konturatu zen eredu amerikarra europartzeak zekartzan arazoetako batzuk zeintzuk ziren: detektibea sinesgarri egitea, edo eta,

haren ordezko naturala izan zitekeen polizia maitagarri egitea.

## DETEKTIBEAREN ZAILTASUNA

Gogoratzen Jon Garai, Haitz Zumeta...? Gotzon Garteren nobela beltzen detektibeak.

Nobela beltzaren erreferente ohikoenak etxeretzea beti izan da arazo iturri; orain hogeita hamar urte eztabaidatu egiten genuen nobela beltza Euskal Herrian posible ote zen. Humphrey Bogartek haragiztatzun zuen bezalako detektibe bat Euskal Herrian? Nork sinetsi behar zuen?

Hogeita hamar urteko epea zabala da eta askotarako ematen du. Erreferentziak etxeratzeko garaian, edonola ere, beti izan da inteligenteena sakoneko antzekotasunak bilatzea, kanpoko itxurak kopiatzea baino.

Alabaina, detektibearen zailtasuna ez da bakarrik gurea izan. Spade, Marlowe, Archer eta enparauak ez ziren noranahikoak.

Protagonistarako poliziarik nahi ez zuen Jean-Patrick Manchettek, bere nobela guzti-guztietan pertso-

naia finkorik erabili ez zuen Manchettek, bai sortu zuen, ordea, detektibe pribatu bat bizpahiru nobelatarako. Tarpon zuen izena.

Frantzian gaude, 70-80 hamarkadetan.

Manchettek, detektibeez:

Detektibe pribatuen artean, alde batera utzirik agentzia zahar errespetagarriak, telefono-zerrendan iragarkiak jartzten dituztenak, daudenak agentzia txikiak dira, fabriken zaintzan edo eskuaterren aurpegi-txikizioan espezializatuak, zeinen langileak usu izaten baitira polizia ohiak edo mafioso ohiak. Tarpon, nire *Morgue pleine* nobelako detektibe pribatua, guztiz irreal da. Bozeto bat da. Pribatua da eta bakarrik dago, ez dakit haren antzekorik benetan ote dagoen. Oso behetik abiatu naiz gogoan daukadalako beste istorio batzuk idazteko pertsonaia honekin. Ikusiko dugu pertsonaia nola joango den hazten, hezten, politizatzen... Momentuz hortxe ipini dut, guztiz “amerikarra” den istorio baten erdian.

Manchettek, 1973an, *La longue ville* izeneko proiektu bat prestatu zuen, antza. Telebista-serie bat egiteko enkargu bat zen, gero ezerezean geratu zena. Manchettek proiektua azaltzen duen sarrera bat idatzi zuen, eta bertan: “Nahi dugu sortu ‘detektibe pribatu

tuen' istorio bat. Gauza jakina da honelako pertsonaia-klasea gaizki aklimatatzen dela Frantzian. Baina, baldin bada tokirik Frantzian non sinesgarria den, toki hori Mediterraneoko kostaldea da, non sor daitezkeen sinesgarritasunari kalte egin gabe nobela beltzeko eta zinema beltzeko pertsonaiak”.

Manchette bere zalantzak azaltzen ari da, bakarrik bereak izango ez zirenak, hain segur. Produktorea konbentzitu nahiko zuen, igual:

“Pribatuari” berari dagokionez, nekez imajinatuko dugu esmerilez leundutako ate baten atzeko bulegoan eserita, scotch-a esku batean duela eta Smith & Wesson-a bestean. Baina badira “egitura” berreskuratzeko moduak. Hasteko, gure gizona ez da izango detektibe pribatua. Abokatua izango da. Baina lanbidetik bota dutena. Injustuki, jakina... azpijoko baten ondorioz, eta ikusten hasten gara nola marrazten den haren iraganean haustura itzel bat, zeinak gizona bihurtu baitu silueta geldo hau, begirada hotz hau, ahots nagi hau. Mendekua hartu nahi du. Eta zain dago.

Erreferente amerikarra errekuiperatzea ez da erraza izan Europa osoan, baina badira moduak. Inteligen-

teena, sakoneko ezaugarriei begiratzen diena, azalekoen gainetik.

## NOLA DEN POSIBLE OFIZIO HORI AUKERATZEA

GALDERA: Gangsterren balentriak ez zaizkizu interesatzen?

ERANTZUNA: Ez.

GALDERA: Eta poliziak?

ERANTZUNA: Polizia batek badu zerbait liluragarritik, zeren ni ez bainaiz oraindik iritsi konprenitzera nola aukeratu daitekeen ofizio hori. Gogoratzen zaizkidan azalpenak hain dira iraingarriak interesdunentzat, gizakiarentzat eta are gizate-riarentzat ere, non ezin baitira egokiak izan. Hobeki ulertzen ditut egiazko sadikoak, edo zabor erabatekoa: militarra edo torturatzaila. Horiek uler nitzake, baina hiri-barruti bateko *txakurra*, ez.

## POLIZIA AUKERATZEAREN ARRAZOI PROSAIKOA

Espainiako Estatuan ere antzeko arazoari egin behar izan zioten aurre. Poliziarik edo detektiberik

ezean, kasik nobela berri bakoitzerako pertsonaia egokia asmatu behar lukete idazleek, horrek dakarren lanarekin. Aldiz, kontuak kontu, halako komisario edo polizia edo inspektore bat asmatuta, lan hori guztia aurreratzen dute, eta horrela errazagoa da 20 nobela, demagun, egitea.

Alde horretatik, argigarriak dira Andreu Martin idazle katalanaren hitzak, *A navajazos* nobelaren protagonistari buruz -polizia berau; nobela 88an argitaratu zen-, galdetu ziotenean: “Estereotipo bat da, (...) garai hartan, ez zegoen, poliziaz beste, horrelako kasu bat iker zezakeen inor”.

Protagonista polizia izatea eroso da, praktikoa; bestela, liburu bakoitzean, pentsatu/garatu/asmatu beharko litzateke pertsonaia berri bat, liburuaren kasuari egoki zaiona.

Baina hau beste kontu bat da.

## MANCHETTE PARADOXIKOA

Manchette polarraren berritzailetzat eta Frantziako lehen figuratzen hartua izan zen; baina Manchette kontzientea zen polarra, edo nobela beltza, amerika-

rren gauza zela, eta hilik zela. Horretan datza paradoxa.

Uste honek posizio ideologiko eta politiko gotor batean zeukan oinarria:

Urrezko aroko nobela beltza zanpatuaren hasperena zen, bihotzik gabeko munduaren bihotza, besteak esaten zuen bezala. Baina gaur, zanpatuak ez du hasperenik egiten: su ematen die polizia-etxeei, tiro egiten die hanketan estatu-politikariei. Bat-batean, nobela beltza hutsalkeria bihurtu da. Hutsalkeria gustagarria, nahi bada, denbora-pasa irakurtzen duguna trena hartzen dugunean. Eta nobelagileek polizien eta estatu-politikarien sarraskiak kontatzen badizkigute, hainbat hobe, baina desordena toki guztietara zabaldu den garai batean, Txinan banketxeak erasotzen dituzten garai batean, errealitateak zurbil uzten du bere errepresentazioa. Laburtzeko, nobela beltza kantu tragiko bat zen; dagoeneko ez da. Munduak fribolo izateari utzi dionean, polarra bihurtu da fribolo.

Alegia, polarra hilik zen, Manchetterentzat; zentzua zuen polarra idazteak “kontra-iraultzaren” garaian, generoa zenean kapitalismo garailearen aurka espresatzeko modu bakarretako bat. Baina ez zeukan



justifikaziorik ekintza iraultzailea, berriz ere, posiblea zen garaian.

Eta, bestalde, atxiki esaldi hau: “Urrezko aroko nobela beltza zanpatuen hasperena zen, bihotzik gabe-ko munduaren bihotza”.

Horrela zeuden gauzak 1970. urtearen inguruan Frantzian. European, alegia.

## MANCHETTEREN JARRERA: GENEROA EUROPARTZEAREN ARAZOA

Manchetteren obran, testuinguru estetikoa garrantzizkoa da (ultrabehaviorismoa: “on ne dit jamais ce qu’un personnage pense, mais comment il se comporte”). Baina hari lotuta dago, baita ere, zentzu politiko indartsua:

Frantziako polarraren lehen arazoa da ez dela amerikarra. Forma artistikoek beren denbora eta beren espazioa daukate. Polar klasikoak zedarri historikoak dauzka (20ko urteak, 50eko urteak), eta zentro geografiko bat ere bai, Estatu Batuak, orduan munduko zentroa zena, munduko merkaturko zentroa, polarra sorrarazten duen kontra-iraultzaren

zentroa. Artea merkataritza-gai bihurtzen denean (kultura deitua), hegemonia politikoa eta ekonomikoa hegemonia kulturala ere bada. Hegemonia amerikarraren aurrean, forma zaharrek bizirik iraun dezakete, finkatuz (...) baina berria beti definitzen da forma amerikarrekiko harremanaren arabera. Harremana imitazioan eta ukoan datza (...) Polar amerikarrak determinatzen du polar frantziarra, hartatik kanpo dagoen ber.

Esan liteke estetikaren eta politikaren sentimendu aldi bereko eta bortitz horrek osatzen duela *Nada*, *L'affaire N'Gustro* edo *La position du tireur couché* bezalako nobelen muina.

Nik amerikar handien antzera berregiten dut; baina amerikar handien antzera berregitea haiek egin zutena bezalako ez den zerbait egitea da: *Pierre Menard*, *Kixotearen egi-learen* arazoa da! Zer egiten da zerbait berregiten denean distantziatik, gauza hori egin zeneko garaitik kanpo? Polarra, amerikarren erara, garai batekoa da. 1970ean idaztean, gizarte-errealitate berri bat hartu behar da kontuan; baina kontuan hartu behar da, halaber, polarra gaindituta dagoela, polarraren garaia pasatu delako: gaindituta dagoen formula bat berriz erabiltzea, erreferentzia moduan erabiltzea da, ohora-

tzea da, berori kritikatu, exajeratu, itxuraldatu alde guztietatik. Are, errespetatzeko deformatu egin behar da, eta horixe da egiten saiatzen naizena nire hurrengo obran: gehiegi errespetatzea, polarraren forma errespetatzea, nolabait esan, %200ean.

Ezin esan bere postura argi uzteko ahaleginik egin ez zuenik, eta bere posizio literarioaren paradoxikotasuna agerian uzteko nahikoa argibiderik eman ez zuenik:

*Nada* idatzi eta gero, edukiari gero eta garrantzia gutxiago eman izan diot, eta gero eta gehiago saiatu naiz beren burua, esan dezagun, suntsitzen zuten nobelak idazten, nobela exajeratuak; nobela horiek izan nahi zuten, polar amerikarrarekin konparaturik, On Kixotea zena (begirune guztiarekin esanda), zaldunen nobelekin konparatu gero.

Demagun, *La position du tireur couché* bezalako nobela bat irakurri, generoak irakurlearengan sortzen duen jakin-min, aurrera egiteko gogo eta interes guztiarekin irakurri ere, eta amaierako eszena behar bezala ulertzeko funtsezkoa da hitz hauek ulertzea.

# JEAN-PATRICK MANCHETTE

## NADA - 1

NADA talde baten siglak dira. Taldekoek AEBek Frantzian daukaten enbaxadorea bahitu dute. Bahitzaileek Goemond komisarioa daukate atzetik.

Treauffais ia koma-egoeran zegoen. Polizietako batek ostikoak ematen zizkion gogo handirik gabe. Bigarren polizia bat apartamentua miatzen ari zen. Aitaren jesarlekuan eseririk, Goemondek lur gaineko atxilotuari begiratzen zion, ez oso lasai, kolpeak hartu eta jada ez zuelako erreakzionatzen. Jaiki eta sukaldera joan zen. Miaketa egin berri zuen polizia-rekin elkartu zen.

- Oraindik ez du hitz egin? -galdetu zuen poliziak.

Goemondek ezezkoa egin zuen, buruz.

- Potroak bihurrituta saiatu zarete?

- Hori tortura litzateke -esan zuen Goemondek-. Gure herrian ez da inor torturatzen.

JEAN-PATRICK MANCHETTE

NADA -2

*Nada* (1972) gomendagarriaren beste pasarte bat:

- Errenditu egiten naiz -esan zuen Cashek, eztulka, eta besoak buruaren gainetik ipinita.

Goemondek tiro bat bota zion bularraren erdira. Neskak atzera egin zuen bat-batean, eta ahoz gora erori zen lurzorua gainean.

- Zuk hau ahaztu -esan zuen Goemondek jendarmeari begira-. Zure erretreta gogoan hartu.

JAKOB ARJOUNI

*ZERBEZA GEHIAGO*

Jakob Arjouni idazle alemaniar bat zen, Frankfurt-en sortua, Jacob Bothe egiazko izenez. 1964an jaio zen, baina gazte hil zen, 2013an, minbiziak jota. Hainbat nobela idatzi zituen, Karankaya detektibe turkoa sortu zuen. Virus argitaletxeak plazaratu zituen haren liburu batzuk, gaztelaniaz, *Más cerveza* hau bezala. Liburua 1988koa da, gaztelaniaz 96an argitaratu bazen

ere. Gure artean ez da oso ezaguna. Malaletxea dario poro guztietatik, gogorra behar du turkiarra izateak Alemanian:

- Nola sartu zinen lanbide honetan? Zera, turkiarra izanda, esan nahi dut...

- Alemaniar subditoa naiz.

- A, bai?

Niregana makurtu zen, eta konplizitate bezalako zerbait zegoen haren begiradan.

- Lanak, gero, nazionalitate puta hau lortzeko, ezta?

- Niretzat ez zen zaila izan. Belardia mozten abila naiz, inauterietan barre egiten dut eta gauza naiz kartetan aritzeko eta zerbeza edateko aldi berean. Munichen atzetik, hor nonbait, Afrika dago, eta han beltzak bizi dira. Ez dut nahi izaten inork ni molestaterik kirol-berriak ikusten ari naizenean. Nire sofaren kuotak puntual ordaindu ditut. Eta nire bihotzaren barrenean, Silesiako dantzari bat naiz.

Une batez mihi puntan eduki zuen "hau dena ez duzu serio esango" ebitaezina, baina irentsi egin zuen, eta barre egin zuen, barre pixka bat bortxatua izan bazen ere.

- Serio esanda, Karankaya jauna, noiztik bizi zara Alemanian?

- Nire ama erditzean hil zen. Aitak Alemaniara ekarri ninduen. Aitak ez zuen askoz luzeago iraun eta Alemaniako familia batek adoptatu ninduen. Hemen bizi naiz zentzumena daukadanetik.

Alemaniarren deskripzio gogoangarria egin eta gero, Kemal Karankaya detektibeak, 50 bat orri geroago, herrialde horretako Poliziarekin egiten du topo:

- Paliza bat ematen ahal dizut, eta erdi hilik utzi, eta inor ez da horregatik kezkatuko. Are, beharbada eskertu egingo didate.

Bere azkazalei begira jarri zen.

Baina, jakina, nik beste soluzio bat bilatu nahi dut. Ez zidan graziarik egingo... tira. Lau funtzionariok beren lekukotasuna emango zuten, alegia, zuk labana batekin eraso egin zenidala, eta zu barrura zoaz eraso-saiakerarengatik, nahiz eta -irribarre egin zuen, poz-pozik- okerrago izan ahal -bizkarreko lagunkoi batzuk eman zizkidan-, aurpegia xisko eginda uzten ahal dizut, hainbeste ze auto baten aurreko kristala zeharkatzea edertasun-tratamendua dela irudituko bailitzaizuke.

## VAZQUEZ MONTALBANEN "MUTANTE KUALITATIBOA"

Horrenbestez, nobela beltzaren arazoa, arazo literarioa zen aldetik, AEBetako depresio garaiko eredia beste toki batera -Europara-, eta beste garai historiko batera -40-50 urte geroagoko mundura- ekartzea zen. Manchette izan bazen Frantziako Estatuan horretaz kontzienteen izan zen idazlea, Manuel Vazquez Montalbanek paper antzekoa jokatu zuen Espainiako Estatuan, frantziarrak baino urte gutxi batzuk geroago.

Bere postura zein zen oso ongi argitu zuen *Quimera* aldizkarian egin zioten elkarrizketa luze batean.

Vazquez Montalbanek esaten zuen nobela poliziatikoa tradizionala azpiliteratura dela, baina, batzuetan, oinarri azpiliterario baten gainean, hark "mutante kualitatiboa" izendatzen zuena sortzen zela: alegia, genero-erreferente jakin batzuk hartuz, eta berkodifikatuz, egiten zen nobela. Horri deitzen dio hark nobela beltza, nobela poliziatik edo nobela enigmatik bereiziz. Hammett, Chandler eta Himes jartzen ditu adibide.



## BEGIRADA DA KLABEA

Kazetariak hartaratua, elkarrizketa hartan Vazquez Montalban saiatu zen, konbikzio askorik gabe, nobela beltza definitzen. “Kasuistikaz betetako definizio zabal bat” eman eta gero, ordea, ezaugarri klabe bat ematen du: “delituari dimentsio sozial eta urbanoa ematen dio, garapen kapitalista jakin batekin lotua”. Hau da, konnotatu egiten du era nabarmenean. Kazetariak hauxe galdetzen dio orduan, “beharezkoa da antiheroia nobela beltzean?”; eta Bartzelonako idazleak erantzun: “Nork ikusten du errealitatea? Nork proposatzen dio errealitatearen gaineko begirada irakurleari? Begirada pertsonaiak proposatzen dio, eta pertsonaia horren begirada nolakoa, halakoa izango da obraren moralitatea. Moral erlatibo, nahasi eta kontraesanez bete horrekin gehien identifikatzen nauena antiheroi bat da: taxu bateko heroia ez zen sinigarria izango, niretzat.” Eta aurrekoa osatzeko, beste hau: “justiziaren bila abiatzen den heroi moderno detektibe pribatua izan liteke, edo komisario edo polizia justu arraro eta gutxi horiek, nobela beltzak bere buruari permititu dizkionak, errealitatean halako oso-oso gutxi dagoen arren”.

Vazquez Montalban berak aldi bat pasatu zuen Carabanchelen, preso. PSUCeko militantea izan zen hil arte. *Asesinato en el Comité Central* nobelan, Fonseca komisario torturatzaillearekin egiten du topo, egiazko Conesa komisarioaren irudia. Bistan da komisario protagonista ezinezkoa zela nobelagintza hartan. Elkarriketa berean aurrerago esaten duen bezala esateko, “oso zaila da zerbait idazten hastea errepresio aparatuarekiko sinpatia sentituz”.

## ERREFERENTEAREN AURREKO JARRERA

Lehenago, Manchetteri buruz hitz egin dugunean ikusi dugun kezka, eredu amerikarra europartzearena alegia, berriz ageri da Montalbani Espainian nobela beltzaren eskola bat ote dagoen galdetzen diotenean. Erantzuna ezetz da, baina hala ere “espainiarrak direla nabaritzen dela, erreferentearen aurrean hartzen duten jarrerarengatik, bertakoa nobelan txertatzeko moduarengatik, erreferentea egokitzeko ahaleginengatik, sinesgarria egiteko. (...) Erreferentea loriatzen dute, bakoitzak bere estiloan”. Manchettek ere antzeko zerbait adierazi nahi zuela iruditzen zait.

Berarengandik hasita: División Azulen ibili den txibatobato bat, erosketak Boquerían egiten dituen detektibebato...

## GARAI BATEKO BAIKORTASUNA

Montalbani galdera: Onartzen duzu nobela poliziatobato tradizionala kontserbatzailea / nobela beltza aurre-razalea zatiketa?

Erantzuna: Ez dut uste hain bereizketa erotikoa egitea dagoenik; hala ere, azterketa ideologiko zorrotz bat egiten bada, badago, oro har, kointzidentzia bat nobela enigmaren eta atzerakoitasunaren artean, eta nobela beltzaren eta gizartearen ikuspegi aurreratuagoaren artean. (...) Baina nobela enigman errealak askoz garrantzi txikiagoa dauka. (...) Aldiz, nobela beltzean etengabe ohi daude errealitateko elementu egiaztagarriak, eta oso atzerakoia izan behar du egile batek obran mezu atzerakoi bat sartzeko; aski da errealitatearen gaineko begirada neutral edo ambiguo izatea, nobela atzerakoia izatea ezinezkoa izateko".

Nahiago genuke askok, gaur egun hori sinetsi ahalko bagenu.

## GENEROAREN AZKEN MUGAK

Montalbanentzat, nobela interesgarrienak generoaren erreferentzietatik abiatuta, beste zer edo zertan amaitzen ziren nobelak ziren. Hiru egile aipatzen ditu: Graham Greene eta Le Carré, gaurko nobela historikoa egiten dutenak -guk espioien nobela deituko genukeena-, eta Leonardo Sciascia, nobela politikoa egiten duena: "Gehien interesatzen nauena da jadanik generoa ez izaten hasten dena, nahiz eta oraindik nobela beltzaren ezaugarriak izan. Hori ondare literarioa da. Le Carré, Graham Greene, Sciascia biziki interesatzen zaizkit".

Ez dut ukatuko beti iruditu zaidala bereziki interesgarria ideia hau. Kontua ez da, askok, erreibindikazio moduan egiten duten bezala, genero beltza ere duina dela, *literatura serioa* dela aldarrikatzea, baizik eta literatura serioa egitea, edo egiten saiatzea, nobela beltzaren eskema, eskema batzuk, erreferentzia batzuk nahiago bada, erabiliz.

## NOBELA POLITIKOA SCIASCIA - *IL CONTESTO*

1971n argitaratutako nobela honetan, Rogas komisarioa epaile baten hilketa ikertzen ari da. Komisarioa, esanak esan. Komisario zintzoa eta Estatuaren defendatzaile leiala, gainera. Ikerketa konbentzional bati ekiten dio: arma, hilketa noiz eta nola gertatu den, epailearen prozesuetan kondenatuak nor izan diren, arrazoi baten bila, betikoak.

Halako batean, Rogasek lortzen du susmagarri bat edukitzea, are susmagarri hori non bizi den jakitea ere, nahiz eta haren gaineko beste daturik -ogibidea, egoera zibila, jatorria, adina...- ez izan, izena baino ez jakin.

Epailearen baimena eskatu eta susmagarriaren etxean sartzen da. Baina etxean ez dago inor, ez eta bertan bizi dena identifikatuko lukeen edo haren nor-tasunaren nondik norakoa argituko lukeen ezer ere. Fantasma bat.

Hortik aurrera plano-aldaketa bat gertatzen da, eta ordura arte delitu arrunta uste genuena delitu po-

litikoa dela ikusten hasten gara, Rogasekin batera, Rogasek bere ikerketan gora egin ahala. Ikerketak gero eta esfera altuagoetara eramaten du; zenbat eta altuago, handiagoak jasotzen dituen trabak.

Rogasek konspirazio politiko kriminal bat deskubritzen du. Bakarrik dago. Azken erremedio gisa, oposizioko kazetari bati pasatu nahi dio informazioa. Tirokatu egiten dituzte. Hil egiten dira.

Rogas komisario zintzoa eta Estatuaren defendatzaile leiala ezinezkoa da 70eko hamarkadan Italian, hilik ez bada.

ESPIOIEN NOBELAK  
BELEN GOPEGUI  
SINESGARRITASUNAREN AUZIA - 1

Graham Greene eta Le Carré gaurko nobela historikoaren egiletzat bazeuzkan Montalbanek, antzeko titulua legokioke Belen Gopeguiri, hainbat nobelaz gain, *Tiro bat kontzertuaren erdian* saiakeraren egilea ere badena.

Sinesgarritasuna, edo egiantza (beste batzuek erabiltzen duten hitza ere aipatzeagatik) fikzioaren

eta literaturaren baldintza ezinbestekoa da. Nekez egiten ahal zaio kritika gogorragorik ipuin, nobela edo errelato bati, ez dela sinesgarria esatea baino.

Alegia, nobelek sinesgarritasuna baldin badute, azken-azken finean, eta batzuek esaten duten moduan esateko, izaten da irakurleak onartzen duelako “errealitatearen eten bat” gertatzen dela irakurtzen duenean. Idazleari onartzen zaion pribilegioa da “errealitatea etetea”; onartzen ez zaionean, bere lana ez dela sinesgarria esanda, esaten ari zaio iruzurti bat dela (alegia, ez dituela betetzen bere artefaktu literarioari jarri dizkion arauak, tranpa egiten duela), edo bestela, zuzen-zuzenean eta modu ankerragoan, ez duela idazteko eskubiderik, ezin zaiola onartu “errealitate eteteko” pribilegioa.

Puntu korapilatsua eta ez beti hain ongi estudiatua da sinesgarritasunarena.

Sinesgarria eta egia ez dira gauza bat eta bera, ordea. Hainbestetan esan izan denez, sinesgarria eta egia bereiz doaz. Sinesgarritasunak ez du behar egia, ez ezinbestez gutxienez. *Alizia lurralde miresgarrian* literarioki sinesgarria da, baina ez da egia, inondik inora.

Sinesgarritasunak zerikusi handiagoa leukake, egiarekin baino, idazleak irakurlearekin egiten duen itunarekin: idazleak jokaleku bat eta joko-arau batzuk proposatzen dizkio irakurleari (mota guztietakoak: ideologikoak ere bai); honek onartzen baditu, eta idazleak, bere aldetik, markatu dituen arauak errespetatzen baditu, sinesgarritasuna lortzen da.

Belen Gopegui idazle madrildarrak dio, ordea, sinesgarritasuna eraikitzea, fikzioan, lan ideologikoa dela, batez ere.

Adibide bat jartzen du baieztapen hau ilustratzeko, zinemaren mundutik hartua, *Das Leben der Anderen* (2006) filmetik hartua, zehatz esateko (gaztelaniaz *La vida de los otros* izenarekin eman zen).

Filma aski ezaguna da ingelesezkoa ez den pelikula onenaren Oskarra irabazi zuelako, eta Berlingo harrisia erori bezperan gertatutako intriga bat kontatzen du. Gopeguik dio RDA zenaren egitura politiko eta administratiboa ezagutzen duenak badakiela filmean kontatzen direnak ezinezkoak zirela errealitatean (RDAko Kultura ministro batek Stasi polizia sekretuari aginduak ematea, zehatz esateko, ezinezkoa omen zen; azaldu ere egiten du zergatik). Baina azpi-



marratzen du, hala ere, filmean kontaktzen dena mendebaldeko publikoari guztiz sinesgarria egin zitzaiola.

Honaino, ezer berririk ez: esan dugu, dagoeneko, sinesgarritasuna eta egia bereiz doazela.

Baina kontuz, ez gara *Alizia Iurrealde miresgarrian* liburuaz ari. Esan behar da, kasu honetan, filmak kontaktzen dituen gertaerak erakunde administratibo eta politiko erreal batean gertatzen direla (RDA, hau da Alemaniako Errepublika Demokratikoa deitzen zen hartan), eta gainera *errealismoarekin* kontaktzen dituela, edo *errealismo pretentsio* batekin.

Beraz, Gopegui kasu egitera, gertatu ezin ziren gauza batzuk errealtzat pasarazi omen dizkigute, edo nahi izan dizkigute. Hau da, gezurraren eta manipulazioaren atarian geundeko. Eta guk sinetsi, produktuak *sinesgarritasun osoa* zeukalako.

Honetara doa Gopegui, azken finean: guk fikziozko produktu bati sinesgarritasun osoa emateko, beharrezkoa da, aldez aurretik, gure baitan zertidunbre ideologiko batzuk ongi finkatuak izatea. *RDA zenean, Estatuak etengabe espiatzen zituen hiritarrak* litzateke, kasu honetan, den-denok barruan daukagun zertidunbre ideologikoa.

# Polizia sozialdemokrataren aroa

CAMILLERI

*URAREN FORMA*

SINESGARRITASUNAREN AUZIA - 2

Sinesgarritasuna dela-eta, gatozen orain nobela beltzaren esparrura.

Har dezagun, esaterako, Andrea Camilleriren *Ura-  
ren forma* (Igela, 2012; baina jatorrizkoa 1994koa da). Nobela hau da Montalbano komisarioa protagonista duen sailaren lehena. Intrigaren pizgarria hauxe da: Silvio Luparello ingeniaria hilik aurkitu dute autoaren barruan, toki apartatu batean, prakak eta galtzontziloak jaitsita. Bihotzak huts egin omen dio. Luparello ez da edonor. Aitzitik, Camillerik azaltzen duenez, Luparello eraikuntzaren alorrean historikoki negozio izugarriak egindako familia baten azken *gizon fuertea* da, politikari demokrata-kristauak bigarren plano diskreto batetik menderatzen dituen eta bere konfiantzazko abokatuaren bidez mafiarekin harremanak dituen.

Presa dago kasua ixteko. Kasuaz arduratzen den epaileak Montalbanori deitzen dio, hau esateko:

Begira, komisario jauna, ez dut inolako arazorik aitortze-ko presio handiak jaso ditugula kasua ahalik eta lasterren ixteko, bai nik, bai fiskalburuak, bai Gobernuaren ordezkariak eta bai polizia-zuzendari probintzialak.

Honaino, arazorik ez: handiki bat itsuski hil da eta kasua azalpenik eman gabe ixteko presionatzen dituzte autoritate lokalak. Konforme.

Montalbanok, aldiz, bi egun gehiago eskatu dizkio epaileari. Epaileak jakin nahi du zertarako behar dituen bi egun gehiago.

Camillerik hauxe idazten du orduan:

Ez zion kontatu bere eskariak ez zuela inolako oinarririk, edo, hobeto esateko, oinarri bakarra irudipen bat zuela -ez galdetu zergatik edo nolatan-, hain zuzen ere bera baino azkarragoko norbait zebilkiola ziria sartu nahian.

Azkenean Montalbanok aitzakia eskas bat asmatzen du, eta epaileak onartu.

Eta guk sinetsi.

Ordea, inork sinesten ahal du herrixka bateko hirugarren mailako polizia baten oinarririk eta funtsik gabeko susmoak oztopa dezakeela indar faktikoen borondatea bete dadin, bi egunez baino ez bada?

Hain aurreratua al dago demokrazia Italian? Sciasciak behintzat ez zuen uste, urte gutxi batzuk lehena-go.

Alabaina, gaur egun argitaratzen diren nobela beltzen %90ek honelako hasierak eduki ohi dituzte. Esango nuke premisa ideologiko honetan oinarritzen direla: *sistema ustel batean bizi gara, baina sistemaren barruan badira ustelak ez diren heroiak, kasu batzuetan egia jakitea eta justizia egitea ahalbidetzen dutenak. Alegia, polizia ona, polizia sozialdemokrataren garaian sartu gara.*

Izango da sinesten duena benetan, igual. Nire kasuan, nik "sinesten" dut komeni zaidalako: bestela nobelarik gabe geratuko nintzatekeelako. Alegia, onartu egiten dut, idazleak proposatzen didan premisa (edo pakto, edo ituna), gezurra dela jakinik ere.

Onartzen diot "errealitatearen etena", noski. Beste arrazoi batzuk ere baditut horretarako; Camilleri Siziliako idazlea ezagutzen dut, tradizio luze eta aberats baten eta eskola estilistiko anitz eta indartsu

baten oinordeko –Pirandello, Di Lampedusa, Vittorini, Sciascia, Bufalino...-. Egile horiek, gutxi-asko, ezagutzen ditut, are, susmoa dut badagoela *siziliar era bat* literaturan; errespetu bat, beraz. Eta gainera, ongi pasatuko dudala ia segurua da.

Baina sinestetik “sinestera”, bada aldea.

Kritikari batzuek, ordea, sinesgarritasun ezaren zigorra inarosten dute oraindik, Camilleriren *Uraren forma* nobelarena bezalako premisetatik urruntzen diren proposamen literarioak epaitu behar dituztenean. Euren eskema ideologikoetan sartzen ez dena sinesteko gauza ez, eta “sinesteko” gogo gutxi, non-bait. Hau da, konturatuta edo konturatu gabe, kritika ideologikoa egiten ari dira, gehienetan, sinesgarritasunaren mamua paseatzera ateratzen dutenean.

## CAMILLERI ETA VAZQUEZ MONTALBAN

Camillerik eta Vazquez Montalbanek elkar ezagutu zuten 1998an edo 1999an. Vazquez Montalbanek Camilleriren *Un mes con Montalbano* (Emecé, 1999) gaztelaniazko edizioaren hitzaurrea idatzi zuen.

Afera Camilleri Espainiako Estatuan *jaulkitzea* izango zen, noski. Emecéren eskutik irten zen (Planeta taldea). Guztiarekin, merkataritza-operazioak operazio, esanguratsua da bartzelonarraren hitzaurrea.

Ez geunden publizitateak prefabrikatutako fenomeno baten aurrean; aitzitik, fenomenoak baieztatzen zuen publiko zabalak maite dezakeela artisautza-literatura, gustu literarioa moldatzen duen eragile berri bati esker: irakurleen abangoardiari esker, alegia; gaur kritikaren abangoardia baino askoz eraginkorragoa dena, hau esatea hainbat kritikori mingarria bazaio ere; eta kritiko horiek tematzen badira ere publikoa merkatuarekin identifikatzen, epaile ona ezin delako izan frogatu nahian.

Zeinak baieztatzen baitu, zeharka, publizitateak fenomenoak prefabrikatzen dituela (baina hainbeste bagenekien). Carvalhoren sortzaileak folio oso bat erabili zuen, hitzaurre hartan, Camilleriren artisautzaera goratzeko: argitaletxe handiekin ezin lehia zitekeen Sellerio argitaletxe txikian argitaratzen zuen -lau lagunek, Sciascia tartean, 69an sortutako argitaletxea, Palermon-, liburuak ahoz ahokoari esker errepi-

katzen ziren bost mila aleko botaldietan saltzen zituen...

Emilio Manzano kazetariak biak, Camilleri eta Vazquez Montalban, elkartu zituen 1999ko otsailean, Vazquezen hitzaurrea zeraman Camilleriren liburuaren aurkezpena kari. Montalbanek hauxe zioen:

Gure pertsonaien artean, Carvalhoren eta Montalbano-ren artean, ezberdintasun asko daude, antzekotasunak ere bai. Beharbada ezberdintasunik esanguratsuena da zurea polizia publiko bat dela, Estatuaren polizia bat, eta Carvalho, aldiz, ikertzaile pribatu bat da. Hala ere, zurea polizia oso berezia da, ez dut uste egiazko polizia italiar askoren antza edukiko duenik.

Hor dago berriro ikuspuntuaren kezka. Camillerik erantzun zuen aitortuz Montalbanok ez zuela iraungo ezta hiru egun ere, Italiako Poliziarena bezalako egitura baten barruan. "Elementu arrotz bat da, literarioki polizian txertatu dudana".

Txertaketa literario honen ideia errepikatzen da, nolabait, aipatu hitzaurrean:

Erreferentzia kultuek (Montalbanorenek) Pounden poemetan hieroglifiko egiptoarrek duten funtzio bera daukate, beste unibertso baterantz irekitako leihoak dira, sinestezinak egiazko komisario batentzat, baina sinesgarriak polizia literario batentzat, hitzez egindako sorkaria den ber. Camillerik Montalbanoren bizitza bikoitz eta kultuarekin jolas egiten du, irakurlearen konplizitatea bilatuz.

Baina irakurlearen “konplizitatea” bilatzen denean sinesgarritasuna lortzeko, seinale zerbaitek egiten duela huts. Zer? Nire ustez, ez Camillerik eta ez Vazquez Montalbanek, ez Montalbanok eta ez Carvalhok, beste gauza askoz larriago batek baizik: errealismoaren pretentsioa da huts egiten duena, nobela beltz bat klabe errealistan irakurtzen ahal delako ustea. Alegia, nobela beltza errealista izan zitekeen, eta zen 1929an, baina 1999an jada ezin da izan, artefaktu historikoa denez; eta berriz itzuliko ginateke lehen ere aipatu ditugun Manchetteren hitzetara, Borgesek *Pierre Menard, autor del Quijote* aipatzen dutenetara.

Irakurleen konplizitatearen bila hasita, ez da makala Vazquez Montalbanek aukeratu zuen bidea; zer eta, Kennedyren bizkartzaina eta CIAko agentea izan den detektibe katalan bat, komunista ohia gainera,



bulegoa Rambletan daukana. Esango baligu bezala, tira, hau onartzen badidazue, joko-zelai hau eta arau hauek onartzen badizkidazue, hortik aurrera denari men egitea, besterik ez daukazue. Konplizitatea ez, eta erabateko entrega da eskatzen duena. Eta bere irakurleak izan garenok onartu, gorabeherak gorabehera eta okerrak oker, asko eman digulako.

Eta, lehenengo gaira itzuliz, konplizitatea eskatzen didatenean ere, ez da berdina Camillerik eskatzen didana edo Vazquez Montalbanek eskatzen didana. Ludikoagoa eta ironikoagoa da katalanak eskatzen duena, motzagoa eta *politikoki zuzenagoa* siziliarrak eskatzen duena.

Azken finean, Manuel Vazquez Montalbanek interes handiz eta onenak emanda -nire ustez- egin zuen hitzurre horretan, amaieran, esaten zuen bezala:

Ipar kultural bateko irakurlea izan da, ipar geografiko batekoa bainoago, aukerak eman dituen genero poliziakoa gehiago izan ez zedin azpigeneroa eta adjektibo soila, eta ezagutza narratiboaren estrategia bilaka zedin.

Eta Camilleri ere baiezkoan dago, baina hala ere, lehen aipatu dudan bien arteko topaketa horretan,

arrakasta dela eta ez dela, saltzea dela eta ez dela, hitz hauek eskapatzen zaizkio: “Batzuetan uste dut er-gelentzako moda bat baino ez naizela”.

CAMILLERI  
*URAREN FORMA*  
KONTZIENTZIA TXARREKO KOMISARIOA

Montalbanoren lehena denez, garrantzizkoa da nola margotzen digun Camillerik bere komisarioa. Orain Retelibera ikusten ari da, “ezkerreko oposizioa-ren ahotsa”, non Nicolo Zito ari baita.

Montalbanok azkar batean telefonoa hartu, Retelibera-ko zenbakia markatu, eta ea Zito jartzeko moduan al zen galde-tu zuen: kazetariaren eta bien artean bazen halako sinpatia bat, adiskidetasun bat kasik.

Izan ere, Montalbano proletario bat da, polizia den arren. Handiki baten etxeko pinakoteka dastatzen ba-dakiena, hala ere:

Arindua hartu zuen Montalbanok: alargunak dena baldin bazekien, ez zeukan ibili beharrik gezur bihurriak asmatzen senarraren heriotzaren alde lotsagarriak ezkutatzeko. Margolanez gozaten jarraitu zuen. Etxean, Vigatan, marrazkiak eta grabatuak baizik ez zeuzkan, Carmassi, Attardi, Guidam Cordio eta Angelo Canevarirenak; bere soldata urritik kostata aurreztuz eskuratuak zituen, eta ezin handik gora joan. Ez zuen sekula modurik izango maila hartako koadrorik erosteko.

Irakurle ezkertiarren begietara sinpatiko bihurtzeko ahalegin nabarmenak, beste hau bezala:

Bulegora iritsi orduko, Faziok jakinarazi zion gatz-fabrikako langileek tren-geltokia hartua zutela; denak mugikortasun-zerrendan sartuak zituzten -eufemismo errukiorra denak kalera bota zituztela esateko-. Langileen emazteak, trenbidean etzanda, trenen zirkulazioa galarazten ari ziren. Karabinteroak bertan ziren. Zer egin behar zuten, beraiek ere hara joan?

- Zertarako?
- Ez dakit ba, laguntzeko.
- Zeini?

- Nola zeini, *ixpetore* jauna? Karabineroei, ordena-inda-

rrei. Besterik frogatu ezean, gu ere zer gara, ba?

- Hainbeste gogo baduk baten bati laguntzeko, lagundu geltokia okupatu dutenei.

- *Ixpetore* jauna, beti pentsatu dut: zu komunista zara.

Komunista bat Italiako Polizian 1994an? Egia esan, ez dakit. Italiako historiari begiratuta, baliteke. Gaurko Italiako egoerari begiratuta, ordea... Baina azken finean, nork bere herriaren historiaz duen pertzepzioaren arabera da, beharbada. Demagun: komunista bat Ertzaintzan, Foruzaingoan, Guardia Zibilean, 1994an, Euskal Herrian edo Espainiako Estatuan?

CAMILLERI

*TXANGOIA TINDARIRA*

Polizia sozialdemokraten aro honetan, Montalbano komisarioa niri irensgarrien egiten zaidanetakoa da. Gutxienez badauka kontzientzia txar pixka bat, badauki nondik datorren eta zeri egin dion uko, eta ez du ezkututzen.

*Txangoa Tindarira* izenekoan (2000an argitaratua, ez dago euskal itzulpenik, beraz hemengoak nireak dira), nobelaren hasieran Montalbanok 68ko kide ohi Carlo Militello ikusten du telebistan:

Carlo Militello, *Carlo Martel* ezizenez ezagutua, bai nagusi-aireak zeuzkalako, baita etsaien aurka mailukadak bezalako hitzak erabiltzen zituelako, baita mailukadak baino okerragoak ziren ostiak ere. Intransigenteena, zurrunena, haren aldean Ho Chi Minhek, manifestazioetan ahotan hainbestetan hartzen zutenak, sozialdemokrata erreformista txatxu bat emango zuen.

Baina jakina, behialako 68ko kide iraultzailea orain garaile bat da, Siziliako bigarren bankuko lehendakari, ez gutxiago.

Eta orain, egin eta agindu ez zituen delituengatik duela hamar urte baino gehiagotik kartzela eta epaiketak jasaten zituen baten salbuespenarekin, eta misteriotsuki erail zuten beste batenarekin, gainerako guztiak ondo bai ondo kokatuta zeuden, ezkerretik eskuinera jauzi eginez, berriro ezkerre-ra salto egiteko, eta berriro eskuinera, batzuek egunkariak

eta telebista kateak zuzentzen zituzten, edo Estatuko arrain handiak ziren, diputatu edo senatari bihurtuta.

Egia esan denok ezagutu ditugu Camillerik salatzzen dituen *txaketakada* horiek, eta badakigu zer mingarriak diren; zer esanik ez Martel honen kasuan, izugarria behar zuena, loa galarazteraino:

Berriro ohera joatea eta Interbancoko lehendakariari buruz pentsatzen segitzea? Artean Martel burkidea zenean hamar mila lirako billetez betetako kartera baten gainean publikoki kaka egin zuenari buruz?

Denoi mikaztu zaigu barrena, gehiago edo gutxiago, baiki; baina hortik polizia izatera... Montalbanok bere buruari:

Ez da izango zu ere hainbeste kritikatzzen dituzun horiek bezain eskasa zarela? Ez zara, bada, hamazortzi urte zenituenean hain sutsu borrokatzen zenuen Estatuaren zerbitzaria? Ez da izango inbidiak tripak jaten dizkizula, zuri lau txakur txiki ordaintzen dizkizutelako, gainerakoek ehunka milioi irabazten dituzten bitartean?

CAMILLERI  
*GAUAREN USAINA - 1*

Koadroa osatzeko, oposizioko ahotsa den Nicolò Zitoren laguna den bezala, hierarkikoki gainean daukanarekiko harremanak ez dira errazak:

A zer matraka! Montalbanoren eta Bonetti-Alderighi komisario nagusiaren arteko harremanak ezin esan zitekeen elkarrekiko estimu eta sinpatiazkoak zirenik, hain justu ere.

CAMILLERI  
*GAUAREN USAINA - 2*

Haur batek Montalbanori: “Handia egiten naizeanean, polizia izan nahi dut, zu bezala”.

Baietz ba. Hemen, aspaldiko jota ironiko baten hitzak ere hala esaten zuen: “que cuando vienen del campo se meten guardiaaaaaaas”...

MANSELL  
*LEHOI EME ZURIA*

Andrea Camilleriren Montalbanoaren eskema errepikatzen da Henning Mankellen Wallanderrekin. Polizia da Wallander, baina polizia atipikoa, gauzak bere modura egitearen zale, justizia eta egiazalea, eta bere nagusiekin harreman zaila duena.

Horrela, nolabait, jatorriko detektibea versus polizia eskema berregokitzen da, *polizia ona* versus *polizia gaiztoa* transposizioa eginez.

Wallanderrek Stig Gustafson susmagarria atxilotu du *Lehoi eme zuria* nobelan (1993).

Hamabiak hamar gutxiagotan Wallander Stig Gustafsonen aurrean eserita zegoen Ystadeko polizia-etxeko galdeketaren aretoetako batean, Per Akeson fiskalari atxilotetaren berri eman eta gero. Hasteko, Wallanderrek galdetu zion atxilotuari ea kafe bat nahi ote zuen.

Kafe bat? Garantia prozesal guztiak beteta? Sinesen dugu, Suedian, hau da, sozialdemokraziaren, demokrazia aurreratuaren eta libertateen paradisu si-



nestarazi digutenean gertatzen delako; sinetsiko al genuke, demagun, Intxaurrondon?

Beharbada hori baino ez dago jokoan -hori baino ez, eta hori guztia-, nork bere herrian dauden segurtasun indarrei eta haien historiari buruz zer uste duen.

MANKELL  
*LEHOI EME ZURIA - 2*

Mankellek oso ongi zekien Europako gainerako herrialde guztietan Suediaz zer uste dugun, eta topikoa-rekin jokatzeko du behin eta berriz. Konovalenko errusiar bat da, KGBkoa izandakoa, hiltzaile ankerra; putakume erabatekoa, egia esan. Pentsamendu hau berea da:

Beste alde batetik, Suediako Poliziak ez zion inolako konfiantzarik ematen. Konovalenkok berak uste zuen hau gertatzen zela, azken finean, Suedia bezalako gizarte ireki eta demokratikoek nazka ematen ziotelako.

Alabaina Mankellen asmoa desmitifikatzailea da bere herriko poliziari buruz:

Wallander ere, segurutik Suediako polizia gehienak bezala, ez zegoen heriotza zigorraren aurka, ez erabat.

Segurutik Konovalenko gehiago fio zatekeen Suediako Poliziaz azken hau jakin izan balu.

Eta Javier Gomez Torres? Javier Gomez Torres fio izango al da Suediako Poliziaz? Etxeko sukaldean gosalitzen ari zela, Stockholmen, dozena erdi poliziak atea ostikoka bota zuen eta etxean sartu ziren, narkotikoen bila, epailearen inolako agindurik gabe. Egunkariaren arabera, Poliziak zeuzkan susmoak bi ziren: langile apala zela, bata, eta espainiarra zela, bestea. Azkenean Madrilgo kazetak balorazio hau egin zuen: praktika mafiosoak eta xenofobia gero eta handiagoak dira Suediako segurtasun indarretako gorila batzuen artean.

## PETROS MARKARIS IDAZLEA EZKERTIARRA DA?

Bai, noski. Hori dio, behintzat, *El País* egunkariak 2015eko otsailaren 1ean egin dion elkarrizketa kari.

Elkarrizketatu dutenean idazlea Cartagena de Indiasen dago, nobela beltzaren jaialdi batean, non, kazetariak dioenez, idazlea *izar bat* baita. Petros Markaris ezkertiarra omen da, ez ordea Syrizaren aldekoa. “Ez nago liluratua gobernu berriarekin, ez naiz inoiz Syrizaren aldekoa izan. Lehena, nahaspilarengatik: alderdi nahasi bat da, lider bakoitzak historia bat kontatzen dizu eta gainerako besteek esaten dutena kontraesaten du. Talde eta joera asko dago alderdiaren baitan. Bigarrena, ultraeskuindarrekin ituna egin dutelako. Ezkerrekoa bazara ezin duzu ituna egin ultraeskuinarekin. Honela, erakutsi dute haientzat lehenetasuna dela troikaren aurka aritzea, horrek batzen ditu, baina Grezian dena ez da ekonomia”.

Markaris ezkerrekoa omen da, baina komisario kontserbadore bat sortu du: Jaritos. Kontserbadorea, baina “*entrañablea*”, kazetariak dioenez. Litekeena da idazle ezkertiar batek protagonista kontserbadore bat sortzea? Bai, noski. Ordea, Jaritosek Syrizatik ea zer espero ote duen galdetuta, erantzuna hau da: “Ezer ez. Jaritos kontserbadorea da, eta ez da sekula ezerekin pozik, beti dago kexaka guztiarekin. Gogora dezagun Albaniarekin muga egiten duen eskualde batetik datorrela, gerrak eta pobreziak gogor astindu duten

eskualde batetik, eta handik ihes egiteko eduki zuen modu bakarra Polizia akademian sartzea izan zela. Baina Jaritosek kontserbadore izaten segitzen du. Bai berak, bai bere emazteak eta bai bere alabak sakrifizio asko egin dituzte bizirik irauteko. Greziar guztiek bezala. Horregatik ez dute ezer espero”.

Kuriosoa da. Markaris egiazkoa ezkertiarra da baina hark ere ez du Syrizatik ezer espero. Horrek ez du ezer frogatzen, ordea, ezkertiarra izateko modu gehiago baitago Grezian.

Gero besterik da zer egin duen Syrizak. Ni ez naiz ausartzen iritzi bat ematen. Zer pentsatuko du Jaritosek? Eta Markarisek?

## JARITOS, POLIZIA MAITAGARRI HORI

Galde geniezaioke geure buruari zerk eraman duen ustez ezkertiarra den idazle bat komisario kontserbadore bat jartzera bere nobelen protagonista.

Aipatu elkarrizketa egin zuen kazetariaren arabera, Markarisek lortu du “Vazquez Montalbanen Carvalhorekin eta Camilleriren Montalbanorekin partekatzen duen magia mediterraneotarra: ikertzaile hurbil, giza-

tiar sortu izana, bere egunerokoan aski umore eta neurosi daukana osaba ponteko bat bezalakoa izateko, Los Angelesko beheko auzoko taberna bateko barran whiskia edan eta edan ari den morroi bakartiarengandik oso urruti”.

Egin ohi da alderaketarik Camillerik, Markarisek eta are Izzo marseillarrak sortutako pertsonaien artean, mediterraneotarrak diren aldetik. Ordea, Vazquez Montalbanek ez zuen polizia bat aukeratu; eta Jean-Claude Izzoren trilogiako Fabio Montale pertsonaia polizia da hasieran, baina trilogiaren lehen partea bukatzerako irten egiten da Poliziatik, polizia izanda justizia eta egia bilatzea ezinezkoa dela iritzita.

Alderatzen diren lau pertsonaia hauen arteko koinzidentziak geografikoak dira, eta anekdotikoak. Baina errealitatearen gaineko begirada oso ezberdinak proposatzen dituzte.

## POLIZIA ALA DENTISTA

Markarisek, elkarrizketa batean, hauxe aitortu zuen: “denbora luzez izan nintzenez ezkerreko aktibis-

ta, ez nien batere sinpatiarik poliziei, Grezian polizia hitza faxistaren sinonimoa baitzen”.

Ez dut ideiarik ere zerk aldarazi zuen Markaris, baina elkarrizketa horretan bertan hauxe dio: “bat-batean, lehen aldiz, konturatu nintzen polizia gaixo horiek burges txikiak direla, amets berberak dituztela, euren seme-alabak mediku edo abokatu izan daitezen nahi dute”.

Lehen aipatutako *El País*-eko elkarrizketako kazetariak uste du Markarisek bingo egin zuela pertsonaia sortu zuenean: “Dentista edo polizia? Bi aukerak ego-kiak ziren bilatzen nuen protagonista setati hori izateko, baina dentistak ez zuen sinpatiarik piztuko”, omen dio Markarisek, barrezka. Buelta batzuk eman omen zizkion eta polizia aukeratu zuen. Ez polizia gogor, bakarti eta irrealia; xaloa, aita familiakoa eta hurbila bai-zik. Eta errebeldea eta justiziazalea, eta bere gaineko hierarkikoekin gaizki moldatzen dena, nola ez:

Ezkertiarrek eta ikasleek aurpegiratu didatenak, hau da, gauza bat direla poliziak eta beste gauza bat pertsonak, badu egiatik. Uniformeak, hierarkiak, pistolak (urteetan ukitu ez dudan arren), jokamolde bat ezartzen dizute. Hala ere niri

bost, ez naizelako arrain handia, ezta, Stazakos bezala, Poliziaren barruan gora egin duenetako ere.

Dentista edo polizia?

Egia da dentistak atzera eginarazten duela pixka bat. Poliziak?

*Diagonal* aldizkariak *Atenas berriro sutan* artikuluan Nikos Romanos gazte bati buruz hitz egiten digu. Gazte anarkista bat ei da, artikulua garaian behintzat kartzelan eta gose greban zegoena. Romanosen historia gogorra da. Poliziak hil zuen Grigoropoulos kidea tiroz; Romanosen besoetan hil omen zen. Romanos hainbatetan atera omen da hango prentsan, "bigarrena Poliziak argitaratu zituenean haren argazkiak Photoshopekin manipulaturik, tortura zantzuak ezkutatze", *Diagonalek* jakinarazten digunez. Amnesty Internationalek salatu zituen torturok. Gogoratzen, esaterako, Unai Romano?

Tira, denok dakigu askoz okerragoak direla dentistak eragiten dituen torturak, ezta?

- Eta nola lortuko duzu, Stazakos? -galdetzen dio Jaritosek Stazakos poliziakideari-. Ez duzu pistarik zaharrarekin lortzeko. Nola presionatuko duzu? Torturatu egingo duzu? Me-

todo horiek ur joana dira. Bubulinas presondegiko azken torturatzailera geriatriko batean bizi da orain, Nikean, erizainak zirikatuz.

Datu objektibo bat da, ez balorazio bat: Markaris garbitzen saiatzen da, egiten ari denaz kontziente, edo ez, Amnesty Internationalek salatzen dituen torturak.

## ATENAS SUTAN

*Diagonaleko artikulutik, berriro:*

Borroka eguna izan zen Atenasen [2014ko abenduaz ari da], eta eguna amaitzean 220 atxilotu zeuden. Armamentu eta hiri-gerrillaren beste erakustaldi bat, bi aldeak batailarako prest daudela erakusten duena. Bitartean Greziako gobernuari, botere finantzieroaren aurrean makurturik, ez omen zaio burutik pasatu ere egiten gizarte-gastua handitzea herria normalizatzeko, eta okurritzen zaion bakarra, edo uzten dieten bakarra, granada negarrarazleen edo autobus blindatuen aurrekontua handitzea da. Batzuek egoerak Militarren Juntaren diktadorearekin dituen antzekotasunez hitz egiten



dute, beste batzuek neofaxismoa aipatzen dute. Seguru-segurua dena da Greziako gobernuaren azken barrikada Polizia dela, eta prest, listo egon nahi duela, 2008ko bezalako beste matxinada bat gertatzen ote den edo.

Jaritos ez da errugabea, ez. Hobe egileak dentista bat aukeratu izan balu.

## POBRE ZORIONTSUAK

Markaris ezkertiarra da? Beharbada, arazoa da jada ez dakigula oso ongi *ezkertiarra* hitzak zer esan nahi duen.

“Grazia, gaur, ametsik gabe esnatu da”, dio honetzero hainbestetan aipatu dugun *El Paíseko* elkarriketan.

GALDERA: Eta zer gertatu da?

ERANTZUNA: Greziarrek beti jakin dute pobre bizitzen, pobrezian bizirik irauteko kultura daukate, eta hori bukatu zen. Ez zegoen baliorik.

GALDERA: Zein ziren balio horiek?

ERANTZUNA: Zintzoak izatea eta gutxirekin zoriontsu izatea, horixe zen. Jende arruntaren herri kantak kantatu, *ouzo* bat edan, eta aski zen munduko zoriontsuenak izateko. Bagenekien pobreak eta zoriontsuak izaten. Baina dena gaizki egin genuen. (...) Bigarren pisuaren ametsa iritsi zen. Denek nahi zuten bi pisudun etxea. Zorpetu ziren eta, krisia iritsi zenean, janarian eta arropan murrizketak egin behar izan ziren hipoteka ordaintzeko. Eta balioak galdua. Bost urte galdu ditugu jendea ez zegoelako prestatua.

GALDERA: Eta balioak itzuli dira?

ERANTZUNA: Gazteak konturatu dira borrokan egin behar dela, beren aukerak asmatzen hasi dira, enpresak eratzten hasi dira, oso onak dira interneten, elkarri laguntzen diote, elkarri laguntzea da balio berria. Eta zerbait daukate komunean: ez dute politikan sinesten. Ez dute ezer entzun nahi ere politikaz.

Balioen kapapean kamuflatua, erro-erotik erreazionarioa iruditzen zait niri diskurtso hau.

## ESPAINIAKO TRANTSIZIOA ETA GREZIAKO TRANTSIZIOA

Churchillek esaten omen zuen demokrazia baten ezaugarria zela ezen demokrazian, goizeko seietan atean jotzen dutenean, esnezalea ohi dela. Poliziak atea jotzeko lana hartuko balu bezala. Kurt Wallanderek kafe bat eskaintzen die atxilotuei, fiskalarekikoak eta tramite prozesal guztiak bete eta gero. Esaten ari ginen sinesgarritasunaren auzia ez ote den izango nork bere Estatuko Poliziari eta haren historiari buruz daukan pertzepzioaren araberakoa.

Alegia, nik sinpatia edukitzen ahal diot Wallanderrri, estatu demokratiko eta garantista bateko polizia dela sinetsita edo sinetsi nahiz; nekezago irentsiko dut Jaritos, hainbat arrazoirengatik. Horietako bat, Espainiako trantsizio eredugarriaren ipuina ez dudalako sinesten, eta badakidalako Grezia, alde horretatik, Espainia bezain eredugarria dela. Eredugarritik deus ere ez, alegia. Bi trantsizioak aztertzen zituen artikulu batean, Kostis Kornetisek hainbat ezaugarri komun edo antzekoak aipatzen ditu: ezkerreko partiduen aurkako diskriminazioa eta militanteen jazarpena; Poliziaren eta manifestarien arteko talka bortxazkoak, hildakoe-

kin; gorputz errepresiboen depuraziorik eza, eta beste.

## PETROS MARKARIS IDAZLEA EZKERTIARRA DA? - 2

Nik ez dakit, egia esan. Seriotan ari naiz, noski.

Oso arriskutsua iruditzen zait inor epaitzea elkarrizketa batengatik.

Hasteko, ez dut ezagutzen bere bizitza, bere biografia, saiatu naizen arren. Ezagutzen dudan apurra 2007tik edo 2008tik egin dizkioten elkarrizketetatik filtratzen dena da. Denek ez bada askok diote “ezkerreko aktibista” izan zela. Ezin jakin zer esan nahi duen horrek, zehatz, mendebaldeko ohiko medioen hizkeran. Ezker muturreko talderen bateko militantea izan zela, ausaz? Talde armaturen bateko kide izan zela? Gizarte aktibista izan zela, kausaren batekin konprometitua? Ideiarik ez. Zerbaitengatik esango dutela pentsatu nahi dut. Edonola delarik ere, 2007tik edo 2008tik, nik irakurri dizkiotan elkarrizketetan (eta dezente izan dira; baina denak ez, noski!), alderdi guztiak kritikatzeko ditut. Syrizatik ez du ezer espero,

ikuski dugun bezala; PASOK amaituta dagoelakoa ohiko da bere ahoan; Alderdi Komunista, utikan; Demokrazia Berria ezin du ontzat eman, kontserbadoreak direlako; To Potami (Ibaia, itzulita), txarra eta oportunistak iruditzen zaio; Egunsenti Doratuko neonaziak txerren txarrenak dira...

Alegia, elkarrizketa guztietan galdetzen diote eta berak ez du inoren alde hitz egiten, sekula ez. Denak kritikatzeko dituzte.

Konpromiso jakin bat edukitzea -ez partidu batekin, ezinbestean, baina bai kausa batekin bederen- ez al da ezkerrekoa izatearen edo aktibismoaren marka bereizleetako bat? Zein da Markarisena? Nik ez dakit, apaltasunez aitortuko dut.

Egia esan, gauza bakar baten alde sumatu dut, sutsu, gainera: euroaren barruan geratzearen alde eta *grexit* izenekoaren aurka.

Baina hau guztia, finean, Markarisen irudi publikoari dagokio. Greziako inongo alderdiko militantea ez den "ezkerreko aktibista" bada -hau da, politika, gehienez ere, modu tangenzialean bizi duena-, zentzua du kazetari guztiek hari politikaz galdetzeak, Delfosko orakuluan baleude bezala? Zergatik galdetzen diote orduan?

Komentario luze honen jatorrian dagoen elkarrizketan, kazetariak Markaris Cartagena de Indiasko festibalean dagoela kontatu digu, eta festibalean *izar* bat bezala hartu dutela. Hortaz, litekeena da Markaris etika pertsonal ezkertiarra daukan pertsona bat izatea, bere proiektio publikoak hartaratua politikaren lohietan sartu behar izaten dena?

Ez dakit. Ez dakit eta hor konpon.

Aldiz, garrantzia duena da galdera horiek guztiek beste arazo bat ekartzen dutela azalera: bere liburuetan gizartea kritikatzeko duen idazle hori nor den; alegia, zer tokitatik egiten dituen egiten dituen liburuak eta kritikak.

Nor da idazlea? Sistemaren aurka borrokatu, kartzela ezagutu eta pobre hil zen morroi bat, Hammett bezala? Auzokoei idazlea dela ezkutatzeko dien bat, Donna Leon bezala? PSUCeko gourmet bat, Vazquez Montalban bezala? Italiako Partidu Erradikaleko diputatua izan zen bat, Sciascia bezala? Arazo estetikoek kezkatutako 68ko trosko-anarkista bat, Manchette bezala? Ergelentzako moda bihurtu ote den bere buruari galdetzen dion PCIko militante ohi bat, Camilleri bezala? Talde armatu bateko militante ohi bat, Carlotto bezala?

Kontua ez da norbera zer den, are gutxiago zer izan behar duen, irakurleak idazlea nor den jakiteko eskubidea daukala baizik.

## ETA ZER ESAN PADURAZ...

...zoragarri idazten duela ez bada. Baina nola batoratu protagonista estatu sozialista bateko polizia daukan nobela? Estatu kapitalista bateko poliziari egin ohi diogun kritika eskainiko diogu hari ere? Poliziak polizia dira mundu osoan, hori ezin uka, baina, posible al da poliziarik gabeko mundu bat?

Eta, Conde gabe, haren sortzailea, Leonardo Padura bera alegia, epaituko dugu? Orduan ere, zergatik? Kuban bizi nahi duela tematu delako? Asturias Printzea saria jaso duelako? Matxista delako?

Padurak zoragarri idazten du.

# Beltzetik berdera, beltzetik beltzera

DONNA LEON

*HERIOTZA LA FENICEN* (1992)

Poliki-poliki, generoaren mugak hain laxatu dira ze Brunetti inspektorea bezalakoak ere beltzak omen dira.

Brunetti Veneziako Poliziako inspektorea da; aristokrata baten alabarekin dago ezkontuta, eta bi alaba ditu. Gaez, etxera itzultzen denean, afaldu eta gero, Monopolyan aritzen da emaztea eta alabekin.

Brunetti eta Paola inguratu zirenean, sukaldeko mahaia-  
ren erdian zegoen Monopolyaren taula eta Chiara zen bankaria, berak nahi zuen bezala; diru-multzo txikiak banatzen ari zen ordurako.

Hammettek burua altxatuko balu!

Hala ere, Donna Leonek kritika soziala egiten du, hori bai, pasarte honetan bezala. Anbulantzia darama-



ten bi gizon zain daude gorpu bat antzokitik erretiratzeke:

- Eraman genezake orain? -galdetu zuen, interes berezirik ageri ez zuela ahotsean.

- Ez -esan zuen Brunettik-. Itxoin ezazue jende guztia antzokitik alde egin arte.

Leihotik gertuena zegoen anbulantzia-laguntzailea, zigarrreta kanpora botata, ohatilaren beste muturrera inguratu zen.

- Luze joko du, ezta? -galdetu zuen, saiatu ere gabe bere haserrea ezkututzen. Gizon mozkotea zen, eta Napoliko doinua igartzen zitzaion.

Lotsagabea, erretzailea eta Napolikoa, gainera. Halakorik!

- Ez dakit zenbat denbora izango den, baina zaudete hor antzokia osorik husten den arte.

Napolitarrak, bere jaka zuriaren mahuka jasota, imintzio nabarmenak eginez begiratu zion erlojuari.

- Gure lan-txanda gauerdian bukatzen da, eta askoz ere gehiago itxoiten baldin badugu, gauerdi pasea izango da ospitalera iristen garenerako.

Aurreneko gizona sartu zen orduan solasaldian.

- Gure sindikatuko arauen arabera, ez badigute hogeita lau ordu lehenago abisatu, ezin dugu lanik egin gure txanda bukatu ondoren. Ez dakit zer egin behar dugun era honetako kasu batean -zapataren puntarekin seinalatu zuen ohatila, kalean topatutako gauza balitz bezala.

Hau da, kritika soziala egiten da, bai, baina kontrako norabidean gauzatzen da; lana antolatzeke ordutegi bati eta arau batzuei eutsi nahi dien sindikalista lotsagabearen aurka.

Sindikalismo mota bat oso kritikagarria da, baina ez horregatik.

Brunettik, une batez, argudioak ematen hasteko tentazioa izan zuen. Segituan pasatu zitzaion tentazioa.

- Zuek biok hemen geratuko zarete, eta nik esan arte ez duzue gela honetako atea zabalduko -erantzunik izan ezenez gero, galdetu zuen-: entenditu duzue? Biok?

Hori, hori. Ikastea daukate. Tontotuta gaude, ala, sindikalistekin argudioak ematen hasteko?

DONNA LEON  
*HERIOTZA LA FENICEN - 2*

Brunettik goizetan egunkariak irakurtzeko ohitura dauka.

*L'Unitá* azkenerako gorde zuen. Espero izatekoa zenez, kazetariari burura zetorkion aurreneko gauza esaten zuen: kasu honetan, mendekua eskatzen zuen, zeina, hau ere espero izatekoa zenez, justiziarekin nahastu baitzen.

*L'Unitá*, Gramscik fundatutako ezkerreko egunkari historikoaz ari da, noski.

DONNA LEON  
*HERIOTZA LA FENICEN - 3*

Hona tren-greba bati buruzko balioespen osoa:

- Tren-greba datorren astean, mozkortu eta bere trena beste baten kontra eraman zuen gidari bat kaleratu dutelako protestan. Gidari harekin lan egiten zuten gizonek hilabeteak omen zeramatzaten kexuka, baina inork ez zien kasurik egi-

ten. Hortaz, hiru lagun hil dira. Eta orain, mehatxuka ari da gizona kaleratu dutela-eta, lehen kexatzen zen jende bera, bestea kalera bota dutelako greba egingo dutela-eta.

Izan ere, Leonek ez omen du ezagutzen elkartasuna hitzaren esanahia.

## DONNA LEON, IDAZLE KONPROMETITUA

Donna Leon estatubatuarra da, New Jerseykoa, 1942an jaioa; baina aspaldi Venezian bizi da.

Alabaina, bere liburuak ez dira italieraz argitaratzen. Makina bat aldiz galdetu diote kontu aski harri-garri horri buruz. Erantzuna ohi da nahiago duela anonimatoa: "Italian ikusezina naiz, ez naute ezagutzen, ez naute kalean geldiarazten. Horrela bizi nahi dut, aske". Inork ez omen daki idazlea denik ere. Alabaina, ikusi dugun bezala, bere liburuetan ez dira falta Italiari eta italiarrei egindako kritikak. Zer pentsatuko zenuke, irakurle, biziko bazina demagun, Getarian, zertan aritzen den ez dakizun auzoko ingeles bat edukiko bazenu, eta bat-batean enteratuko bazina milaka liburu saltzen dituela munduan, gaztelaniaz eta euskaraz ez

ezik, gainontzeko hizkuntza guztietan, non, batez ere, Getariako jendea, ohiturak eta bizimodua kritikatzeko baititu?

Baina gero, onena da hori ez dela arazoa, gainera, Donna Leon "idazle konprometitua" dela aldarrikatzeko (ikus, esaterako, *El País*, 2010eko otsailaren 28koa).

Konprometitua, ados; zerekin edo norekin, baina?

FRED VARGAS

*TOKI BADA EZPADAKO BAT* (2010)

Danglard delako bat ari da azaltzen, Londongo Highgate hilerrian Karl Marx delako bat dagoela lurperatuta:

- Karl Marx -zehaztu zuen Danglardek-. Liburu garrantzizko bat idatzi zuen. Gizarte klaseen arteko borrokari, ekonomiarik eta gauza haiei buruz. Eta horren ondorioz komunismoa sortu zen.

Bai horixe, ongi lurperatuta dago Karl Marx.

DOLORES REDONDO  
*ZAINDARI IKUSEZINA* (2013)

Dolores Redondoren *Zaindari ikusezina* 2013ko urtarrilaren 15ean argitaratu zen, gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta euskaraz, aldi berean.

Italieraz 2013ko otsailerako kalean zen, Feltrinelli-ren eskutik; Frantzia Editions Stock argitaletxeak argitaratu zuen 2013ko martxoan; Erresuma Batuan 2013ko apirilean kalean zen, Harper Collins argitaletxearen ekimenez. Alemanian Bastei Lübbe argitaletxea pixka bat berandutu zen, 2013ko ekainera arte ez baitzuen alemanezko edizioa prest.

Portugalen Divina Comedia izan zen liburua kale-ratu zuen argitaletxea; Herbehereetan De BezigeBij/Cargo; Brasilen, Record Editora; Norvegian, Cappelen Damm; Turkian Marti Publishing Group; Txekian Panteon; Polonian CzarbaOwca; Eslovenian Ikar...

Esaterako, guregandik kulturalki aski urruti dagoen Turkian, 2014ko abenduan kalean zegoen liburua.

Ahalegin editorial eta ekonomiko inportantea (itzulpenak, edizioak, negoziazioak, publizitatea...) se-

kula ordura arte ezer argitaratu ez zuen egile berri baten alde.

Zer esanik ez, zinemarako eskubideak salduta zeuden liburua gaztelaniaz aurkeztu baino lehen.

2012ko Frankfurteko Ferian itxiko zen afera inportante bat, inondik ere; inportanteenetakoa, igual.

Irteera editorial oso potentea, alegia.

## DOLORES REDONDOK BAZTAN PROMOZIONATUKO DU FITURREN

Prentsako albiste batek jakinarazi digunez, Nafarroako Gobernuak argi dauka, eta Dolores Redondoren nobelen tiraina aprobetxatuko du Baztan Fiturren (Fitur: Feria Internacional de Turismo) promozionatzeko.

Horretarako, Dolores Redondok Fiturren irekiera ekitaldiko hitzaldia emango du, eta azalduko du nola Pirinioetako paraje hau bihurtu den bere nobelen agertoki. Gainera, bideo bat estreinatuko da, zeinean Dolores Redondok erakusten baititu bere trilogian agertzen diren Baztango txokoak.

Fiturreko irekiera ekitaldia baino sei bat egun lehenago, Dolores Redondo egon zen, Yolanda Barcina-rekin batera, Foruzaingoaren komisaria berriaren irekiera ekitaldian, Elizondon.

## BAZTAN, LURRALDE LITERARIOA

Irteera potente horren ondorioak laster hasi ziren ikusten. Prentsako beste albiste batek Baztan lurralde literario bihurtua zela gaztigatu zigun, ekainaren 1ean hasten baitzen nobelaren toki esanguratsuenen bisita-programa bat garatzen, Interneten jende askok interesa agertu baitzuen, eta horrek bi elizondoar irteera turistikoak antolatzen animatu zituelako: “liburua argitaratu eta berehala hasi zen jendea etortzen, eta toki hau edo bestea non zegoen galdetzen, Aste Santuan, batez ere”.

Berri berberak jakinarazten du, halaber, Peter Nardemann produktorea Elizondora joatekotan dela filmaketa prestatzen hasteko.

## ARGI BERDEA AROZTEGIA PROIEKTUARI



Aurreko albistea agertu baino egun bi lehenago, beste batek jakinarazi zigun Nafarroako Gobernuak, hauteskundeak baino egun gutxi batzuk lehenago, onartu zuela Aroztegiako PSIS delakoa (hainbat udali eragiten dion plan sektoriala).

Proiektuak gorabeherak eduki ditu epaitegietan; hasieran epaitegiek baimena ukatu zuten, baina gero eman.

Proiektuak 45 hektarea hartzen ditu, Lekarotz eta Elizondon, Baztanen; eta hiru arlo ditu: kirol-arloa, hotela eta egoitzak. Hau da, golf zelai bat, 135 gelako 4 izarretako hotela, spa, maila handiko jatetxe eta bilzarrak egiteko azpiegiturarekin, eta 252 etxebizitza, gehienak familia bakarrekoak edo adosatuak.

Proiektuak 70 bat lanpostu sortuko omen ditu.

Lekarotzar gehienek proiektuaren aurkako iritzia adierazi dute, esanez etxe horiek guztiak betez gero, Lekarotzek halako lau biztanle leukakeen herri berri bat sortuko zela.

Hasteko, 252 bezero behar dituzte, etxeak saltzeko.

Kasualitate harrigarri batez, *Página dos Espainia*-ko telebista programak Dolores Redondori elkarrizketa bat egin, eta non, eta Aroztegia jauregian egin zion. Hauxe da hau, nobela berdea.

## NOBELA BERDETIK NOBELA BERDEAGORA

Lorenzo Silva (Madril, 1966) idazle espainiarra da, ezagutua, batez ere, bere nobela poliziakoengatik, Bevilacqua eta Chamorro guardia zibilak protagonista dituzten nobelengatik ezagutua, batez ere.

2012an Planeta saria irabazi zuen sail horretako 7. nobelarengatik.

Hau ere iritsi behar zen, bistan da; guardia zibilak, ezta beste edozein indar errepresibo ere, ez ziren depuratu Franco hil eta “demokraziarako trantsizioa” gauzatu zenean; alabaina, fama txarra eduki dute duela gutxi arte.

Badirudi nobelak, ikastetxeetarako bisitek eta erakusketek zuritu behar dutela euren irudia, depurazio demokratikorik ezean. Horrelakoa da gu ere bizi garen demokrazia.

Zer izango da hurrengoa? Bevilacqua eta Chamorrok Mikel Zabaltzaren historia kontatzea?

## JEAN-CLAUDE IZZO (1945-2000)

Orain arte deskribatutakoa nobela beltzaren bila-kaera ideologiko moduko bat dela iruditzen zait. Ez da pentsatu behar, baina, generoaren jatorrizko tradizio ideologikoari leial denik ez dela geratzen.

Horietako bat Jean-Claude Izzo izan zen. Marseilla-koa jaiotzez, poeta eta idazlea zen. PCFko militantea izan zen, baina partidua utzi zuen ideologia ezkertiar-rrari muzin egin gabe.

Trilogia aski ezagun bat idatzi zuen, nobela beltzari dagokionez: *Total Khéops* (1995), *Chourmo* (1996) eta *Solea* (1998). Hiru nobelen protagonista Fabio Montale da. *Total Khéops*-en Polizian gehiegi sinesten ez duen polizia da Montale. Lehen emanaldi horretan bertan, liburuaren bukaeran, Polizia erakundea uzten du, koherentzia hutsez; Montale bezalako bat ezin da izan polizia-gorputz ustel eta eskuin muturrak infiltratutako bateko kide. Hortik aurrera, Montale mundua- ren aurkako borrokan jartzen da; hirugarren liburua-

ren akaberan, logikoa denez, irabazi behar duenak irabazten du: munduak, alegia. Hor finitzen da Izzoren serie beltza.

Bereziki aipagarria iruditzen zait bigarrena, *Chourmo*, ez beharbada onena delako, kontu jakingarri asko daukalako baizik; alegia, Marseillako auzo baztertuetan gertatzen den fenomeno baten albistea ematen du: etorkin arabiarren seme-alabak (semeak, batez ere), islamista bihurtzen eta armatzen ari dira. Bitartean, egoera tenkatu nahi duen eskuin muturreko poliziek ezikusiaarena egiten dute, eta mafiak armak saltzen dizkie. Islamistak arriskutsu bihurtzen ari dira, polizia ustelek mafiaren eskupekoak kobratzen dituzte, mafia bere adarrak Kosta Urdira zabaltzen ari da.

Profetikoa izan gabe, liburuak gauza asko ulertzeko giltza ematen du; gogoratzen *Charlie Hebdo*? Eta Bataclan eta enparauak? Liburua 1996koa da.

## CARLOTTO KASUA

1976an, hemeretzi urte zituela, eta Lotta Continua taldeko militantea zela, neska ikasle gazte baten

gorpu odoldua aurkitzen du Massimo Carlottok; hil arte sastakatu dute. Orduan Karabineroengana doa, lekuko izateko; baina une horretan hiltzailea izateaz akusatzen dute. Lehen prozesuan absolbitu egiten dute, frogarik ez dagoelako. Epaia errekurritu egiten da, eta orduan 18 urteko presondegi-zigorra jartzen diote. 1982an Frantziara joatea erabakitzen du, eta gero Mexikora; ordea, ihes egin eta hiru urte geroago Mexikoko Poliziak harrapatu eta Italiara estraditatu du. 1989an kasua berraztertzen hasi ziren, eta 1991n 16 urteko zigorra ezarri zioten. Ordea, iritzi publikoak haren aldeko jarrera hartzen du, eta 1993an Oscar Luigi Scalfarok, Italiako Errepublikako presidentea, barkatu egiten du.

(Wikipediatik hartua)

## MASSIMO CARLOTTO IDAZLE

Hamazazpi urte iraun zuen amesgaizto hau ezagutu zuen militantea, Massimo Carlotto, Paduan jaio zen, 1956an.

Idazle bihurtu zen, nobela beltzen idazlea.

Bere nobela beltzen protagonista Marco Burattida, *Kaimana* ezizenez, tipo gomendagarria:

Gutziz fidagarria eta arretatsua, edatearen bizio itsusia eduki arren. Ikerketak egiteko metodo ez oso ortodoxoak erabiltzen ditu, are ilegalak ere, baina sekula ez die horren berri ematen bezeroei. Ia beti antezedenteak dituen morroi batekin lan egiten du, Beniamino Rossinirekin, lapurra eta kontrabandista, Milango hanpa zaharreko ale nabarmena, arriskutsua eta indarkeriazalea.

Horrela definitzen dute Buratti *Mangiabarcheko misterioa* (1997) nobelan. Carlottok ez dauka ezer euskaraz argitaratua.

Burattik oso ongi daki zergatik kontratatzen duten, nobela berean ikusten denez:

Eta zu, laurogeita hemeretziko kintako gizon ondradu hori, ikerketa hau egiteko ez zara joan *carabinieri*en teniente jubilatu batengana, hogeita hamar urteko zerbitzu-orri bikaina duena kidegoan, ez. Niri deitu didazu: legearen bidetik ez doan ikertzaile bat... Egia deskubritzen duen ikertzaile horietakoa delako, horra zergatik. Beraz, ez ukitu potroak niri, eta serio hitz egin dezagun...

CARLOTTO  
*MANGIABARCHEKO MISTERIOA (1997)*

Egun batez soldadu amerikarren multzo bat iritsi zen, NATOko maniobra batzuk zirela-eta. Horiekin heroina iritsi zen. (...) Amerikarrek thailandiarra pasatzen zuten, ehuneko laurogeian purua.

Massimo Carlotto gaztelaniaz 2006an argitaratu zuten, *El misterio de Mangiabarche* izenburuarekin, Barataria argitaletxearen eskutik.

CARLOTTO  
*MANGIABARCHEKO MISTERIOA - 2*

- Zer egiten du, zehatz, banda horrek? -galdetu zuen nire sozioak.

- Jende sutsua bere tokian jarri, zirt edo zart. Zerbitzu sekretuek, eskubideak zaintzen dituen gobernuren batek esku lotuta daudenean, Avbel Ganceri deitzen diote, batzuek "koronela" esaten diotena, gradu hori zeukalako Frantziako zer-

bitzuetan. Kitto, konponduta. Une honetan, esaterako, saiatzen ari dira FNLCko buruzagitza desegonkortzen, Korsikan, zenbait buruzagi zirkulaziotik kanpo utziz eta, aldi berean, barne-zatiketa sustatuz, probokatzaileren bidez.

- Eta heroina, zer dela-eta? -galdetu nuen.
- Gancek dio gazteak politikatik aldentzeko balio duela.

CARLOTTO

*AGUR MAITEA, AGUR (2001)*

Buratti, dena den, ez da bere pertsonaia bakarra. *Agur maitea, agur (2001)* izenekoan, protagonista go-goangarria da, borroka armatuan ibili eta gero atzerrian ere ibili den militante ohi bat: Giorgio Pellegrini.

Banekien ez nuela zertan beldurrik izan borrokalari erretiratuengatik, baina zuhurtzia sekula ez zegoen sobran. Nire pasaporte faltsua zen eta Italian kondena bat neukan. Txibatazo bat, eta La Santen giltzapetuko ninduten, euskaldunekin eta islamistekin.



Pellegrinik mundua ezagutzen du; euskaldunek non amaitzen duten badaki, baita Polizia nolakoa den ere:

Berriz jo ninduen ukondoaz, belarran. Interrogatorio teknikak. Haren karrera luze eta ohoretsuan, ikasle eta ezker muturreko langile franko suntsituko zituen. Barrenak hustu behar zituela ulertu nuen, eta hobe litzatekeela isilik egotea.

Iragan militantea ahaztu eta dirua egitea buruan besterik ez daukan ziniko bat da Pellegrini. Egiazko militanteen zuzentasuna bere alde erabiltzen du inolako arazorik gabe.

Gero beste bide bat hartu zuen, eta klandestinitatean sartu zen. Damutu batek traizionatu zuen, ordea, baina berak ez zuen ahoa ireki; edo bai, baina bakarrik esateko, Bergamoko dialekto hutsean, bera preso politiko bat zela.

Dirua egitearren eta errespetagarri bihurtzearren, hiltzeko eta kide ohiak saltzeko arazorik ez dauka, komeni bazaio:

Begiratu egin nien. Ederki nekien zer pentsatzen ari ziren. Beste batzuk atera joango ziren eta kontzientziaren harrak ez zien ausiki egingo baldin eta norbaitek kartzelan amaitzen bazuen. Burkideak, ez. Koherentzia, erantzukizun zentzua eta elkartasun militantea. Konturatu nintzen asaldatuta zeudela; Gianniren aurpegian antzeko asaldua ikusi nuen Parisko zerbezategian. Onartu egingo zuten. Ezin ziren joan hilobira traizio baten lotsarekin. Neska-mutil jatorrak, zoriontsu hilko ziren.

Pellegrini, a ze *pajarua*.

## GIBEL PREDIKUA

Edozein liburu, ildo literario eta proposamen estetiko testuinguru historiko batean eta espazio jakin batean sortzen da. Nobela beltza ere bai, noski. Sortu zenetik, ordea, hamarkada asko pasatu dira, testuinguru historikoa zeharo aldatzen joan da hamarkada horietan, eta hori ez ezik, geografikoki ere mundu osora, edo ia, zabaldu da, horrek esan nahi duen guztiarekin: usteak eta fedea aldatu dira, teknologiak eta nik dakit zenbat gauza gehiagok baldintzatu dute gu guztion munduan egoteko moduak, paisaia berriak agertu dira, hizkuntza eta kultura guztietara zabaldu eta egokitu da.

Urte horietan guztietan, toki horietan guztietan, idazleak etengabe saiatu izan dira generoaren erreferente nagusiak egoera eta kultura berrietara moldatzen, produktu oso ezberdinak eta askotarikoak sortuz, baina beti ere generoaren ezaugarri nagusiak gordetzen saiatuz; edo, behintzat, generoaren elementuetatik abiatuta, *beste zerbait* sortzen saiatuz, generoa erabat abandonatu gabe.

Nobela beltzaren ideologia, jatorriz, nabarmen ezkerrekoa zen; alabaina, urteetan zehar izan da merkatuaren logikak gidatutako errekupeazio-saio bat. *Zanpatuen hasperena, bihotzik gabeko munduaren bihotza* izateko bokazioaz jaio zena bozgorailu guztietatik etengabe mintzo direnen beste enuntziatio-leku bat bihurtu da, ez gutxitan, modu zakarragoan edo sotilagoan, mezu hegemonikoak ezin baitu kolonizatu gabeko eremurik utzi. Izan ere, zer ez du kapitalismoak digeritzen? Julio Cortazarrek Managuako parkeetan bere poesiak, ipuinak eta testuak jendetza handiaren aurrean irakurtzen zituen garaiak ez izanagatik, badi-ra jatorrizko tradizio ideologikoari ere eutsi nahi dioten idazleak, beren zailtasun eta kontraesan guztiekin.

Alegia, bizitzak, beti bezala, aurrera egiten du.

Nobela beltza idazten duten idazleek, usu, beren lanaren kalitatea errebindikatzea beharrezkoa ikusten dute. Itxura batean entretenimendua beste helbururik ez duen genero jakin, zehatz eta ezagun bati atxikitzeak dauzkan abantailak, ekonomikoak batez ere, nahi dituzte, baina goi mailako literaturaren labelari uko egin gabe.

Asmoa ulergarria da, baina aski irrigarria; nobela beltz bat goi mailako literatura izan daiteke, edo ez; generokoa izateak ez dio, literaturaren mailaren alde-tik, ezer kentzen, ezta ezer gaineratzen ere.

Izzo batek, demagun, poesia probentzalaren oihartzunak txertatzen ditu generoan; Camillerik he-mezortzigarren mendeko Siziliako pintura ekar lezake trama batera; Vazquez Montalbanek 70eko hamarka-dako ezkeraren eztabaida historikoen ganean txiste bat egin dezake nobelaren erdian. Letra gizonak dira edo ziren, ondare literarioaren ganean operatzen dute, kontzientzia osoz, idazleak dira, genero idazleak baino lehenago, nobela beltza ez ezik poesia, saiake-ra, antzerkia idatzi dutenak. Aldiz, batzuen erreferen-tzia mundua lkeak, Mats Wilanderrek eta gutxi gehia-gok osatzen dute. Inporta du horrek? Ez eta bai. Egia da erudizio erakustaldi hutsal batek ez duela, bere horretan, testu bat goi mailako egiten. Baina kultura-on-dare zabal eta ongi asimilatu batetik idazten duena idazlea da, eta ez txurro-saltzailea, genero *herrikoi* bat espresabide aukeratu izana gorabehera. Ez da gu-txiestekoa, eta ez naiz inola ere txantxetan ari, txurro-saltzaile baten nobela onak egiteko gaitasuna, baina ongi legoke diferentzia ikusteko gauza izatea. Nobela

beltza kalitatezko literatura da? Beharbada esan beharko litzateke batzuentzat nobela beltza klixer batzuen errepikapena dela, eta beste batzuentzat, esplorazio narratibo bat.

Amaitu da. Alde batera, hau liburu oso *antiguo* dela iruditzen zait. Beste alde batera, ordea, etorkizunez beterik ote den susmoa daukat. Historia zirkularra da, zirkulua ixten ari gara, eta beharbada oraintxe bertan ari dira jaiotzen, jaio ez badira dagoeneko, etorkizuneko Hammettak, hau da, *zanpatuen hasperena, bihotzik gabeko munduaren bihotza* izatearekin amesten duten gizon eta emakumeak, nahiz eta ikusteko egon idazleak izango diren, edo beste zerbaitekin.